



HEMEN DA RAMADANA

AZPEITIKO MUSULMANAK BARAUALDIAN DAUDE

DIPLOMAZIA ▶ Ortiz de Urbina txikitan Azpeitian, orain nazioartean

/*

agirre oparidenda
erdi kale 1
tel: 943 811325

ana mari egana jantzi denda
santiago kalea 16
tel: 943 813785

/*

azkue jantzi denda
erdi kale 7
tel: 943 811506

gemma kinkilidenda
santiago kalea 10
tel: 943 151865

/*

torralde itorgintza
eliz kale 12
tel: 943 811212

forondarena oinetakoak
erdi kale 9
tel: 943 811143

/*

gotain lurrindegia
erdi kale 3
tel: 943 814358

jone eta maikar estetika zentroa
julian elorza 5
tel: 943 813898

/*

jostaldi kirolak
erdi kale 15
tel: 943 814623

lidia jantzi denda
erdi kale 17
tel: 943 811264

/*


martina isasti jantzi denda
julian elorza 5
tel: 943 812668

natura belardenda
enparan kale 15
tel: 943 150931

/*

torrealday aholkularitza
iberotarren pl 7
tel: 943 150509

urrestilla jantziak
erdi kale 6
tel: 943 811869



alde zahar
Aspetiko
alde-zaharreko
merkatarien elkartea

egin zaitez bazkide
tel: 943 81 08 95

Logika



Futbola kirola da. Arrauna kirola da. Beraz, futbola eta arrauna gauza bera dira.

ETA euskararen alde dago. Gu euskararen alde gaude. Beraz, gu ETakoak gara, helburu berberak ditugulako.

Logika horrekin *Egunkaria*-ren arduradun bakoitzari hamabi eta hamalau urteko espetxe zigorra ezarri nahi diote, *Egunkaria* aurrera ateratzeagatik, hori ETari laguntzea baita.

Logika berbera ezarri dute Udalbiltzako afe-
ran ere, eta gure herritar Miren Odriozolari

hamar urteko kartzela zigorra eskatzen diote. Eutsi goiari, Miren!

Eta kartzela zigorrak eskatzen dituzten horiek berberak dira euskara ideologiaren gainetik dagoela esaten dutenak. Horiek dira euskara museoa gorde nahi dutenak, euren ideologiari men eginez.

Nik, eta nik bezala hainbat azpeitiar eta herritarrek, *Egunkaria*-ren akzioak eskuratu genituen. Eskuratu baino gehiago pagatu, akzio horiekin ez baitago etekin ekonomikorik. Eus-

karaz bizi ahal izatea, eguneroko prentsa euskaraz irakurri ahal izatea, hori da etekina, horri negozioa dei badakioke.

Baina dirua jaungoiko bakarra den gizarte honetan, eta egunkariak kontrol ideologikoko tresna baino ez direnean, nola ulertu ondara hori eman izana *Egunkaria*-ren hondartza sortzeko?

Ez, Madrilan ez dute sekula ulertuko dirua musutruk ematea euskaraz bizi ahal izateko.

Gaitzerdi hemengoek ulertuko balute!

uztarria ▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko

Kultur Koordinakundea

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia.

943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 88.a (2007ko urria)

Urtea. IX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua.  EUSKARAREN ERREGI

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarrria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.500 ale

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. Maider Zendoia

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

[U]iritzia]

08 Inkesta. Ikasturte berria hasi da. Herritarrek ikastaro batean izena emateko asmorik baduten jakin nahi izan dugu.

09 Triku Festie. Urriaren 19an abiatuko da Triku Festie. Aitor Bengoetxea antolatzailea ekimenaz aritu da.

[U]mamia]

12 Larre itxita. Ekainean itxi zuten 27 urtean zabalik egondako putetxea. Txabela han arituen lanean urte horietan.

14 Klik. Jorge Leon Lan Mobil-Iraurgiko jokalariekin arrantzan.

20 Diplomazia. Yera Ortiz de Urbinaren diplomazia ibilbidea.



[U]jakiteko]

26 Urola ibaia. Urola ibaia egoera onean dela dio Jose Antonio Martinez Gipuzkoako Urak enpresako kideak.

[U]euskara]

36 Toponimia. Azpeitiko toponimia biltzen duen herriko mapa argitaratu du Udalak. Ikerketaburuarekin elkarriketa azterketaz.



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)





Enbido ▶



Koldo Aldalur

Newarrak

Nepalgo bihotza da Katmandu eta han, Thamel auzoan bada Garuda izeneko hotel txiki eta goxo bat. Han ezagutu nuen Tsata, bertako langileetako bat. Ni bakarrik nengoen, eta hark berezkoa du lagunak egitea. Atzerritarrek eskuarki ezagutzen ez duten hiria erakutsiko zidala agindu zidan.

Hari esker ezagutu nuen irribarrea eta gosea besterik ez duten haientzat eraikitako eskola. Han ikusi nuen nola azaldu zieten gurasoei haur garbia ez zela derrigorrez haur gaixoa, eta guraso gehienek kasurik ez dietela egiten jakiteak harritu ninduen. Era berean, Tsatari esker jakin nuen mundu honetan newarrak ere badirela.

▶ **EMAKUMEAREN EGOERA.** Azpikasta horretakoak zazpi milioi lagun inguru dira, eta Nepalen eta Indian daude sakabanatuta. Newarra jaiotzetik da azpikasta horretakoa. Neskatoek, beste edozein umek bezala, bizitzaren ikasgai nagusiak kalean ikasten dituzte, jolasean batzuetan eta borrokan beste askotan. Ibaira jaitsi eta behi sakratuei buztanetik tiraka gaur, eta elkarri zorriak kentzen bihar. Lehen hilekoa izaten duten arte. Bizitza erabat aldatzen zaie; beno, aldatzen diete. Sabelpeko lehen minarekin batera, beraiek baino askoz helduagoa den gizona aurkeztuko die aitak. Honekin batera, bikote berriek horretarako propio dituzten parkera hiru bidaia egingo dituzte, eta hirugarrenean, senarra izango dutenari hankak garbituko dizkio neskatoak. Segidan, eztaia, eta handik aurrera bizi osorako etxe barrura. Tsatak newarrak newar izateaz harro daudela esan zidanean hasi ziren eztabaidaren txinparta beroenak zerurutzen.

–Harro?

–Bai, harro. Haien bizitzak badu zentzurik. Amek eta amandreek egin zuten bizitza egiteko moduan dira: senarra ahal bezain ondo zaindu, mirestu, eta jainkoek nahi beste ume mundura ekarri hazteko.

Erabat haserretu baino lehen eman genuen amaituzat berriketaldia, baina bi egun barru berriro han zen hortza-horixkak irribar zabalean galduta.

–Prestatu. Bazkaltzera joan behar dugu.

Tsatak lagun asko ditu, eta horietako bat newarra da. Haren etxera eraman ninduen. Iluna eta epela. Zorutik apenas altxatuta, mahai batean, arroza eta barazkiak, ogi eta azukre beltzak, belar errearen usaina, isilaldi luzeak jainkoen begirapean, eta zoko batean, goitik behera estalirik, Tsataren lagunaren emaztea.

–Ameriketako Estatu Batuetakoa da— bota zidan kolpetik, errespetuaren kristala mila zatitan apurtuz.

–Hogei urtetik gora zituela ezagutu zuen gaur senarra duena, eta badaki etxe honetatik ez dela irtingo hankak aurretik dituela ateratzen duten arte.

–Eta gaixorik jartzen bada? Edo damutzen bada?

–Berak erabaki du libre bizitza nola bizi; gu ez gara inor gure arrazoiak berearen gainetik jartzeko.

Urte asko dira Katmandun Garuda hotela utzi eta etxera itzuli nintzela baina, noizean behin, newar hura etortzen zait gogora. Eperra aurrean gartzainak saltzen ari ginela, etxeko zapatilekin lotsatuta eta bizipoza ardotan itotako emakumea hurbiltzean, urruti ez diren herrietako alardeez harro dauden herritar jatorrak aurkeztu dizkidanean, emakumeekiko erasoak adinik ez duela jakitean azaltzen dira ilunpeetako emakumea eta bere burua senarraren, ohituren eta sinismenen menpeko ikusi nahi izateko arrazoiak.

▶ **ASKATASUNAREN KOLOREA.** Han eta hemen egoera ez da bera emakumeentzat. Katmandun beltza bada, hemen grisa da; edo nabarra, ez dakit. Baina askatasunak kolore bakarra du. Norberak aukera dezala zein margorekin koloretatu nahi duen hain gozagarria izan beharko lukeen esperientzia.

Kuriosoa da. Emakume newarrek etxeko leihoetan zulotxo bat dute, eta diote zirrikitu hartatik ikus dezaketena bakarrik dagokiela ikuste. Errealitatearen zatitxo. Agur.

HILEKO ESALDIA ▶

Injustiziak ez du tamainarik

AZPEITIKO

6 harategi hauetan bakarrik



Euskal Okela
Carne de Vacuno del País Vasco

soilik baimendutako harategietan



"Bertan jaio eta hazitako ganadua. **KALITATEKO** okela nahi baduzu, **GUREAN** aurkituko duzu!"

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA



Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 1
TFNOA.: 943 811671



Jon Larrañaga

Denbora

Orain gutxi entzun dut oso entretenigarria eta dibertigarria den ETB1eko saio batean Albert Einsteinek nola azaldu zuen erlatibitatearen teoria. "Gustuko duzun gizon edo emakumearen ondoan jarri ordubetez eta minutu bat pasatu dela pentsatuko duzu; jarri aldiz berogailu baten gainean minutu batez eta ordubete igaro duzula pentsatuko duzu".

Badakit ez dudala ezer deskubritu (hori Einsteinek egin zuen), baina goiko afirmazioa egia biribila dela ezin ukatu.

Maitasuna, gorrotoa, dirua... omen dira mundua mugitzen dutenak. Nik, ordea, denok denboraren menpe bizi garela pentsatzen dut eta denborak mugitzen duela gure bizitza. Ez dugun denborak, alferrik galdu dugun denborak, etorriko den denborak edo garai hobe horren zain egoteak gure bizitza baldintzatzen du. Baldintzatu onerako eta txarrerako, askotan aitzakia galanta ere bihurtzen zaigulako ditxosozko denbora.

Denbora urrea dela diote, baina nire lagun batek zehaztasun bat egiten du: urrea balio duena ez da denbora, denbora librea baizik! Eta ez zaio arrazoirik falta!

Bai ezberdina dela denbora norberak administratzea edo besteen menpe egotea, ezta? Fabrika sarreretan edo lantoki sarreretan dauden fitxatze-ko makinatxoek ahalmen ikaragarria dute ordubete arratsalde oso bihurtzeko. Eta gero soldatan nabaritutako balitz, gaitzerdi! Baina hori ere...

▶ **DENBORA GALTZEA.** Ez dut filosofiko edo trszendental jarri nahi eta esan beharra dut denbora galtzea ere oso erlatiboa dela. Batzuentzat denbora galtzea dena besteentzat ez da; alderantziz esango nuke gainera, plazerra izan ohi da. Aste gogor baten ostean etxean sartu eta sofan etzanda telebistako 'arinkeriak' ikustea denbora galtzea izan liteke, baina niretzat batzuetan beharrezkoa da. Hondartzan hankaz gora erdi lo egotea ere denbora galtze eder eta bikaintzat dut. Lagunekin taberna bateko terrazan gau osoa mundua

konpontzen pasatzea ere 'behar' horietan sartuko nuke.

Beste muturrean, aldiz (denbora galtzearen aldean), egun guztia negarrez eta kexatzen egotea, besteengatik gaizki esaka jardutea eta mundu osoarekin haserre egotea aipatuko nituzke. Askotan, gehiegitan, gure artean kirol olinpiar bihurtu ditugun kontuak, gainera.

▶ **AGURRA.** Hori guztia zertara datorren galdetuko duzue askok (hau irakurtzeko denbora eta beta hartu duzuenok, behintzat). Ba, gaur agur esatea tokatzen zaidalako. Badirudi nire denborak Uztarrarian bere bukaera haxe duela, je, je, je... Hitz eta ahots berriak datoz eta niri agur esatea tokatzen zait. Gainera, denboraren kontua oso ondo datorkit nire lagun askori barkamena eskatzeko eta, era berean, nire burua lasaitzeko. Lana eta denbora askotan, gehiegitan, ingurukoak alde batera uzteko eta ahazteko erabiltzen dugulako.

Gauzak errepikatu egiten dira, eta nola, gainera! Lehen artikuluaurrean izan nuen beldur bera sentitzen dut azkenengo hau idazten ari naizela. Hasieran, ez nekien zeri buruz idatzi eta orain amaieran, ez dakit kontatu nahi nuen guztia kontatu dudana eta kontatu dudana ondo kontatu dudana... Ez dakit tarte hau denbora galtzea izan den zuentzat. Niretzat, terapeutikoa izateaz gain, esperientzia polita izan da, nahiz eta batzuetan denbora faltak (ez da aitzakia) puntu estresantea ere eman dion bi hileroko hitzordu honi.

Badut, hala ere, denbora ondo aprobetxatu ez izanaren sentsazioa. Gauza interesgarriak esan beharrean nire buruhauste aldrebesak irakurri behar izan dituzuenaren sentsazioa; herrian gertatu dena edo gertatzen ari dena, batik bat, azken aldian hartu duen norabidearekin eta esateko dagoen guztiarekin... Baina, bueno... Ferminek esango lukeen bezala, "horrelakoa da bizitza".

Agur esan aurretik, ordea, nire bizilagunak aipatu nahi ditut. Niretzat plazerra izan da, nahiz eta ez ezagutu pertsonalki, Olatzekin orri hau konpartitzea eta, besteak beste, Koldo (hori bai, hori ezaguna dut) aurreko orrialdean hain erne, zorrotz eta kritiko irakurtzea. Ez dezagun denbora gehiagorik alferrik galdu eta ea azkar pasatzen den hilabetea berriro nire buzoian Uztarriako eta herriko berri izaten jarrai dezagun. Aio!



Astakiloen abenturak



8 liburuz osatutako ipuin bilduma

Patxiku, Olegario, Mikel eta Josexo astakiloen abenturekin gozatuko duzue!



Bernardo Atxagak idatziak
Marrazkiak: **Jokin Mitxelena**



- 1.- Astakiloak Arabian
- 2.- Traslantiko batean
- 3.- Astakiloak Finisterre aldean
- 4.- Zirku batean

- 5.- Manager biboteduna
- 6.- Astakiloak New Yorken
- 7.- Astakiloak Afrikan
- 8.- Afrikako zuhaitz txikia

Urriaren 6tik aurrera, larunbatero BERRIArekin!



+ 4,5 €

Liburu guztiak erosiz gero, astakiloen marrazki bizidunen **DVDa opari!**

6 abentura biltzen ditu. 60 minutuko iraupena du.

Harpidedunentzako eskaintza: **%20 merkeago**. Eskaria egiteko: 943-30 43 45 edo www.berria.info
Ipar Euskal Herriko irakurleok bilduma lortzeko telefono honetara deitu behar duzue: (00-34)943-30 43 45

Babesleak:



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA GAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



Moxpit & Txilbor ▶ Xanti Rodriguez



Galdetuz ▶

Ikastarorik egiteko asmorik ba al duzu?

ESTI ARANTZABAL ▶
donostiarra



“Aerobiken eman dut izena. Azepeitian ari naiz lanean eta eguerdian zerbait egite aldera hasi nintzen aerobik egiten. Kirola egiteko modu atsegina dela iruditzen zait”.

MAITE ARZALLUS ▶
azpeitiarra



“Trikitia jotzen ikasi nahi dut aurten. Nire birraitona Antonio Aranaga *Auntxa* zen eta haren afizioari jarraitu nahi izan diot. Etxean betitik entzun izan dut trikitia, baina notak ikastea zaila da”.

LEIRE BETEGI ▶
azpeitiarra



“Lehen aldiz sabel dantza ikastaroan eman dut izena. Bestalde, lau urte daramatzat yoga ikasten eta aurten ere izena eman dut. Oso lagunarte polita osatu dugu taldean”.

PEDRO LUENGO ▶
azpeitiarra



“Pinturan eman dut izena. Aurtengoa seigarren urtea izango dut. Oso gustura joaten naiz, talde eta irakasle jatorrak ditudalako. Larunbat goizetan joan ohi naiz”.

Hau ▶



Miren Larrea

Baikortasun ahaleginetan

Aurrekoan gure enpresen I+G eta maila teknologikoari buruz aritu ondoren, ezagun batek zera esan zidan: datuak hala izango direla, baina idatzitakoa ezkorra iruditu zitzaioela. Ondorioz, oraingoan datu baikorragoen bila ibili naiz eta, aurkitu ere, aurkitu dut zerbait. Ea zer iruditzen zaizuen.

Uztailaren 25ean, EHUK antolatutako Donostiako Udako Ikastaroe-tan tokiko eta erregioetako garapenerako politika eta tresna berriak az-tertu zituzten. Azkoitiaren eta Azpeitiaren lehiakortasunari buruzko az-terketa bat ere aurkeztu zen bertan. Han esandakoaren arabera, berri-kuntzaren bidean gure lehen sendotasuna ondarea omen dugu. Orain-dik mantentzen ditugun homogeneousunak eta kohesioak konfian-tzazko harremanak sortzeko prozesuak erraztu omen ditzakete eta harreman horiek berrikuntzarako eta, ondorioz, etorkizuna eraikitzeko giltzarri izan omen daitezke.

Ondorio hori ateratzeko aztertutako aldagaiak –beste batzuen arte-an– udalerrian jaio eta bertan bizi direnen kopurua, bizi eta lan bertan egiten dutenena eta euskaldunen batez bestekoa izan ziren. Elkartzen gaituena baino gehiago banantzen gaituena errazago ikusten dugun garai honetan, zer pentsatua eman behar liguke horrek.

Azaldutako bigarren sendotasuna udalerriotako eredu industrialak erakutsitako indarra izan zen. Atal horretan, bertako enpresek biziraute-ko duten gaitasuna azpimarratu zuten, eta berau epe luzeko konpromi-so serioetan eta gaur egunera arte indarrean egon den enpresa ere-duaren baitan lehiatzeko abilezian oinarritu zuten.

Jakina, gure ahultasunak ere aipatu zituzten. Baina hasieran esanda-ko moduan, horiek ez dute tokirik garukoan.

Apunteak ▶

ZALANTZA.

Justu duela urtebete izan ziren Loiolako elkarrizketa politiko sekretupekoak eta, haiek arrakasta izan balute, ezin jakin biharko egunean historikotzat joko lirakeen. Euskal Downing Street, akaso? Bitartean, dakiguna: Loiolan parte hartu zuten protagonistetatik batek politika utziko duela laster –Jose Jon Imaz EAJkoak– eta beste bat kartzelan sartu zutela ekainean –Arnaldo Otegi Batasunekoak–.

BEHERA.

Hamar urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak Miren Odriozola Azpeitiko zinegotzi ohia. Udalbiltzako kide izan eta "ETAren proiektuaren menpe" aritzeagatik. Politika jakin bat egitea delitua da Espainiako Estatuarentzat.



Miren Odriozola Azpeitiko zinegotzi ohia. UZTARRIA

GORA.

Igande honetan izango dira Bergaran kilometroak, eta hango ikastolak Patxi Azkargorta omenduko du, han ikastolaren alde hasieran egindako lanagatik.

Ba al dakizu... ▶

...Betharramdetako pilotalekuan harmaila estaliak ere jarri dituzten arren euri pixka bat egiten duenean kantxan potzuak sortzen direla itoginak daudelako?

Zer dio? ▶ Aitor Bengoetxea (Triku Festie ekimeneko antolatzaileetako)

Zazpigarren edizioa dagoeneko

Aurtengoa zazpigarren Triku Festie izango dugu. Orain urte batzuk herriko musika taldeetako ki-deok musikarekiko genuen zaletasuna jendearekin konpartitzeko beharra sentitu genuen. Beharrari Triku Festie antolatuta erantzutea erabaki genuen.

Azken urteotan bilakaera nabarmena izan du egitasmoak. Urtero guztia berplanteatu eta hobetzen saiatzen gara. Hasierako urteetan kontzertu guztiak tabernetan edo udaletxe azpian antolatzen genituen. Gainera, musika taldeak herrikoak edota inguruko herrietakoak izaten ziren. 2004an, ordea, plaza karpa jartzen hasi ginen eta, pixkanaka-pixkanaka, Euskal Herriko kanpoko taldeak ere ekartzen hasi ginen. Gauzak horrela, urteroko antolaketaren taldeak markatu du bilakaera eta, gure iritziz, oso positiboa izan da. Izan ere, urtero zerbait hobetzeko gogoak mugiarazten gaitu.

Triku Festiek helburu garbi bat du: musikarekiko dugun grina eta interesa herritar guztiengana iristaraztea. Horretarako, herriko nahiz kanpoko taldeak nahastu eta sentsazioak partekatzen saiatzen gara. Oro har, jendearen erantzuna oso ona izan dela uste dugu; urtetik urtera hobea.

Egitasmoa aurrera ateratzeko orduan, zailtasunak ere izan ditugu. Izan ere, pertsona asko harridura geratuko lirakeke egitasmo guztia burutzeko izandako aurrekontu estua ikusiko balute. Bestalde, ordutegien kontuarekin ere muga nabarmenak izan ditugu; ezin dugu edozein ordutan programatu. Ildo horretan, Azpeitiko kultur azpiegitura faltak ere bete-betea jotzen digu.

Aurrera begira, hainbat hobekuntza bururatu zaizkigu. Dena dela, oraingoan, etorkizuna aurtengo festa ondo egitean datza.

Osasuna eta espetxea

Aldizkari hau kaleratu aurretik, irailaren 17tik 24ra, urtero egin ohi duen bezala, Sentsibilizazio Astea antolatu du Elizbarrutiko Espetxeratuetik Pastoraltzak. Honoko lelo hau aukeratu dute aurten: *Iraun niregan, ez izan beldurrik: osasuna eta espetxea*.

Espetxeratuaren osasun arazoaren artean, droga kontsumoarekin lotutako gaixotasun mentalak hartu dituzte gogoan. Horrelaxe aitortzen du Espetxeratuetik Pastoraltzaren Elizbarrutiko ordezkariak bidali digun eskutitzean: "Ongizate gizarteak baditu bere gaixotasunak ere, horien artean drogen kontsumoarekin zerikusia duten gaixotasun mentalak daude. Zoritxarrez, gure espetxeetan ugariegiak dira horrelako gaixotasunak jasaten dituzten pertsonak".

Duela lau urte *Vida Nueva* aldizkariak *Las cárceles nos pertenecen a todos* izeneko gehigarrian aipatzen zuen 55.000 espetxeratu bizi zirela Espainiako kartzeletan garai hartan. Psikiatriak zer egin ez dakien gaizkile patologikoen multzo txikiak gain, lagun horiek hiru multzotan banatzen zituen: drogamenpekotasunak dituztenak (espetxeratuaren %56), etorkinak eta gaixo mentalak.

Horien egoera gogoan hartuta, hauxe zioen gehigarri hartako idazleak: "Honelako pertsonentzat ere espetxea ez da lekurik egokiena. Egonkortuta mantenduko dituen tratamendu bat behar dute, harreman eta afektibitate arloetan ezinbesteko dituzten elementuak emango dizkieten pertsonekin osatutako ingurune eroso eta atsegina. Lan arloan ere behar-beharrezkoa dute laguntza, diru sarrera batzuk izateko eta pertsona gisa sendotzeko. Baliabide horiekin, gaur egun espetxean dauden buru gaixotasundun askok bizitza normala egin ahal izango lukete askatasunean. Hori da erronka nagusia".

◀ Eta beste




Kepa Susperregi

Azpeitia hiri zintzo eta leiala ▶ Andoni Salegi



Hi al haiz dalako
alkate berri hori?



‘Sobresaliente!’



Kepa Urbieto

Igor, maitea! Zer moduz pasatu dituk oporrak? Lanean aldean ederki, nik behintzat. Hori bai, biharamun latza uzten zidatek. Gogorra egiten zaidak oso lanerako itzulera. Hegalak moztuko balizkidate moduan sentitzen nauk. Harrapatuta. Azkenean, ohitu egiten haiz. Edo onartu beste aukerarik ez duk. Dagoena zagok eta kito, eta ez edukitzea baino hobea denik ezin ukatu. Lanak tarteka bisita egiten digunoi galdetu, bestela. Aurtengoa inoiz baino astunagoa izan duk, ordea. Literalki zioat, Igor.

Abuztuan herrian geratzekotan ninduan. Zerbaitean entrentitu behar eta kirola egingo nuela sinestarazi nioan neure

buruari. Harro-harro lagunei bost kilo galduko nituela esatera iritsi ninduan. Serio-demonio sinestuta, gainera! Urte guztian, astean behin lagunarteko futbol partida bat jokatzearekin neure kiloei eutsi banien, hila-bete guztian kirola eginda batzuk galduko nituela ondorioztatu nian. Logikoa duk, ezta? Ia-ia asmatu nian. Bost kiloren gora-beheran, hamar irabazi! Alegia, nire pisu idealean egoteko bost galdu behar nitian, baina galdu ez, baizik eta irabazi egin nituela! Hortaz, orain hamarrera nagoela. Baten moralari kolpe handia ematea duk hori. Besterik ez nian merezi. Azkenengo bi asteetan kanpoan ibili nauk, patxada ederrean:

jan, edan eta lo. Orain lanak. Doble, gainera. Lanean, eta hamar kilo gehiagorekin. Batzuek udara hasterako egiten ditek *operacion bikini*; nik, ordea, bukatutakoan egin behar.

Irailarekin batera hasi gaituk berriro futbol partidekin. Horrek kiloak galtzen lagunduko didatelakoan nagok. Hauxe lehenengo egunean eduki genuen elkarrizketa: “Kepa, ihertu ein haiz, pute hori!”, batek esana. Nik, jakina, nire egoera larriaren berri eman nioan, eta erantzuna: “Potoldu? Nun sartu dituk ba kiluek?”. Albotik besteak: “Hau jo ta jo ibili dek, txupa-txupa inda zeok!”. Horiek bai lagunak!

‘Alien vs depredator’



Igor Aranbarri

Aupa gizon! Ai, ai, ai...! Saihets azpi horietan alien bat irten zaik, beraz...; bizi propioa daukan izaki deserosoa. Sofara itsasten hauena, eskaileretan dinbili-danbala, alde batera eta bestera mugitzen dena, eta etxeko hozkailura behin eta berriz bultzatzen hauena, esertzean agertzen den *dobladilloa* alajaina! Jo eta jo baldin bahabil, gaitzerdi! Baina beti azpian, ala?

Alienak ia ezertarako gogo gabe uzten hau. Orain ispilura begiratzen duanean, betiko tripa sartzea ez duk nahikoa izaten, hor jarraitzen dik tripa koxkorak.

Orduan iraileko promesen fasea hasten duk, politikoak

legez, hartu beharreko neurriak zabaltzen ditiagu lau haizetara. Kiroldegian zerbaitean izena eman, tarteetako mokaduei agur esan, eta denbora gutxian aliena deuseztatuko dugula sinesten diagu.

Bai, ondo ezagutzen diat hire jarduna. Abuztuan, gosaltzen dudan tabernako lagunari honelaxe esan nioan: agur nire goizetako kafesne eta pintxoei, hemendik aurrera infusioa! Gainera, bizikleta estatikoa erosi nian, eta irailean spinningean eta igerian hasi nauk. Spinning hau mundiala duk! Behatzak beratzerainoko izerdi jariora ateratzen duk eta izerdi putzuak kontzientzia garbi uzten zidak. Beraz, goizetako kafes-

nera bueltatu nauk, eta, gainera, kura-sana-rekin, a zer plazerra goizetakoa!

Etxeko bizikleta arropak zintzilikatzeko tresna bihurtu duk, eta hozkailura lasai luzatzen diat eskua. Bai!, bazakiat azkenean gizentzen bukatuko dudala. Baina ederra duk gero gustura bizitzea, ezta? Eta aliena, ba, lagun egin dezakek, mimo batzuk egin, izen bat jarri... Izan ere, bi eguneko kontua baldin bada gure bizi hau, ez ditiagu ba goseak pasatuko!

Gainera, beti zeukaat amona orain ere flakatu naizela esateko... Ez haut konbentzitu, ezta? Neure burua ere ez... Alienarekin gerran jarraitu beharko.



LARRE itxi dute

Ekainaren 29an itxi zuten Larre putetxea. 27 urtean egon da irekita. Txabela izan da urte horiek denak lanean pasatu dituen prostituta bakarra

► Testuak: Enekoitz Esnaola ► Argazkia-montajea: Leire Larrañaga

Txabela esaten diote eta argentinarra da. Ez du eman nahi izen-abizenik. "Badaezpada", dio. Ez eta zenbat urte dituen ere. "Nire sekretuetako bat baita...". Baditu urte batzuk; izan ere, orain dela 27 urte etorri zen Azpeitira. Larreko putetxean egon da harrezkero lanean prostituta. Joan den ekainaren 29ra arte. Orduan itxi zuten Larre, eraikinaren jabearen eta putetxeko nagusien desadostasunak tarteko.

Txabelak baino ez ditu pasatu 27 urte horiek Larren prostituta bezala lanean. "Oso gaztea nintzela lagun batek eta biok Argentinatik irtetea erabaki genuen, probatzeko. Han ez zegoen etorkizunik. Bilbora joan ginen lehendabizi, eta lan honetan hasi ginen. Hondartza Zumaiaiko putetxeko nagusiak ezagutu nituen han [itxi zuten putetxe hura], eta Zarautzen bizi izan nintzen, alokairuan, etxe txiki batean. Handik, Azkoitira, Hontzara [putetxe hori ere itxi zuten]. Sebastian Benitez eta haren lagun bat etorri ziren halako batean Hontzara –ezin dut gizon haren izenik esan–, eta Sebastianek Azpeitian putetxea

irekitzeko interesa azaldu zidan. Neuk eman nizkion aholku batzuk, hark ez zuelako arrastorik. Nonbait, diru pixka bat behar zuen Sebastianek, eta abokatuak esan zion mundu honetan sartu gero aterako zuela sosik".

Sanjuandegi auzoko taberna batean saiatu zen nolabaiteko putetxea zabaltzen Benitez zena: Izaron. Han zen Txabela. Baina Poliziak ez zien utzi han negozioa jartzen. "Oso bistan zegoen hura", dio Txabelak. Larrera gero, 1980an, baserri batera, 'ezkutura'. Aurten arte.

► **ARGENTINARA DIRUA.** Seme bat bazeukan ordurako Txabelak, urtebetekoa. Bikotekiderik ez. Familia Argentinan utzi arren –haurra, tartean; gaur egun Azpeitian bizi da–, ez zuen ahaztu, urte hauetan guztietan makina bat aldiz joan delako hara, eta ekonomikoki ere lagundu izan duelako. "Han gaur egun ere ez dago etorkizunik". Etxekoek bazekiten zertan zebilen lanean.

Larren hasiera hartan prostituta bi argentinarrak egon zirela gogoratzen du, "eta Santanderko [Espainia] batzuk ere bai. Handik ta-

xian etortzen ziren Azpeitira aste bukaeratan! Hala ere, aste batzuetan hemen gelditzen ziren".

Jo eta ke egiten zuten lan Txabelak, "egunero". Bukaera aldera utzi zion halako troteari, aste bukaerarako utzi zuelako lana. "Gogorra izan al den? Ez. Neure amistadeak nituen, nire laguntxoak, bezero batzuk baztertu ere egin ditzakezu, eta, ondo portatzen bazara, ez duzu arazorik izaten. Pentsa, 27 urtean prostituta aritzeko eta, gainera, toki berean... Estimaten ninduten".

"Gainera, ondo irabazten da". Ez du behin ere lan kontraturik izan, euren lanpostua ez dagoelako legeztaua. Erretirorik ez du kobratuko. Irabazitakoa, gastatu ez ezik, gorde egin duela dio. "Larren uste dut tabernariak eta beste batek baino ez zeukatela kontratua. Prostituta batzuk egunean zehar etxeetan-eta garbitzaile aritzen ziren, horrela kontratua izateko behintzat. Ez, prostituta lan hau ez dute behin ere legeztauko. Ez zaie komeni askori, mundu honetan diru asko mugitzen da-eta".

Sosekin erlazionatuta du gogoan noiz hil zitzaizen jabea, Sebastian Benitez. "Euroa sartu baino aste gutxi batzuk lehenago hil zen, 2001eko abenduan. Harekin ez genuen arazorik izan kobratzean –egunaren bukaeran–, pezetarekin ondo konpontzen ginelako. Euroa sartu zenean, aldiz... Haiek komeriak hasieran, pezetatan kobratzen genuena eurotan ematean zentimoak-eta zeudelako zirelako".

Jende asko ezagutu izan du Larren. Baina ez du nahi zera egin eta dirurik gabe ote zen norbait, edo zerako neuan etxeko arazoak kontatzen ote zizkion gizonetako batek... "Oso diskretoa naiz, halakoa izan behar dugulako guk. Gure laneko arauetako bat da.

Epaitegietan

Larre eraikinaren jabearen eta putetxeko nagusien arteko desadostasunengatik, afera duela sei urtetik epaitegietan dago. Horregatik dago itxita Larre orain. "Nik esango nuke behin-behinean dagoela itxita", dio putetxearen jabeetako batek, Eugenio Benitezek. Sebastianen semea da hura, duela 27 urte han putetxea ireki zuenarena, eta 2001 bukaeratik Jose Ignacio anaia eta biak dira nagusiak. "Aita hil zenean ez genuen Larre ixterik nahi, familia zuten neska asko zeudelako". Aita zenak han 21 urtean "gau eta egun lanean" jardun zuela dio Eugenio Benitezek. "Eta orduan eta gero Larreko neskek beti izan dituzte legezko paperak".

“Larren neure

amistadeak nituen eta, ondo portatzen bazara, ez duzu arazorik izaten; 27 urtean egoteko...”

TXABELA ►

Larreko prostituta



Baserri horrek hartu du Larre putetxea 27an urtean. Argazkian bertan, montajea eginda, prostituta bat.

Bestela, halako bezero haserretu egingo zaizu kanpoan halako istorio entzuten badu. Badaki zuk kontatu duzula. Ni atetik barrura Txabela naiz, atetik kanpora ez dut ezagutzen barrukorik”.

► **ONENA, EUSKALDUNA.** Denedetik izan du bezero, eta badu faboritorik. “Bertakoa, euskalduna. Dirua uzten duelako. Trago bat ateratzen dizu, jatorra da... Hori ez dut esaten nik bakarrik, beste neskek ere badiote. Azkeneko boladan mutil gazte portugaldar batzuk-eta izan dira, baina hauek diru gutxi uzten dute”. 29-30 prostituta zebiltzan azkenaldian Larren, “hietetako asko brasildar neska gazteak ziren, eta bezero gazteak ugaritu egin ziren hala”.

Euren bezeroak baino jende gehiago izaten ziren Larren bestela. Hara joaten ziren asko, “trago bat hartzera-eta zihoazen, besterik gabe”, Txabelak dioenez, “putetxera joateak ez duelako esan nahi prostituta batekin egotera zoazenik”.

Orain, Larre itxita dela, lanik gabe geratu da Txabela. “Zaharrenak geratu gara langabezia”. Hemen inguruan beste putetxe bat noiz irekiko ote daude? “Ikusi egin behar. Azpeitia-Azkoitia inguruan, behintzat, putetxe baten beharra badago. Eta ez dut esaten gugatik, bezeroengatik baizik”. Beste nonbaitera joateko asmorik ez dauka berak. “Izan ere, putetxe batzuetan bizitzeko jabeek egunean 60 euroko pentsioa kentzen dizute. Larren batere ez”.


Txabela Azpeitiko etxe batean bizi izan zen urteetan. Gaur egun Azkoitian. Eta gure artean dagoenetik, kalean (ere) batik bat bertako jendearekin eduki du harremana, “euskalduna jende ona” delako. Behin ere ez zaio gustatu izan argentinarrekin hartu-emanaz, “handik irteten duena beti zerbaiten bila dabilelako”.

Orain dela urte batzuk Azpeitian denda txiki bat irekitzeko asmoa izan zuen. Ez zuen lortu. “Igal saiatuko naiz berriz ere”. ◀

arrainak

SASKIRATUZ

Jorge Leon Lan Mobil-Iraurgiko pibota saskibaloian aritzen da egunez. Aisialdiko orduak, berriz, txikitatik landutako afizioan pasatzen ditu: arrantzan. Uztarriak harekin igaro du gau parte bat




EGUNEROKO HITZORDUA.

Leon ia egunero joaten da kiroldegira entrenatzera. Taldean oso giro ona aurkitu duela dio. Garmendi auzunean bizi da, Hesham Taman *Isho* egipziar eta Kevin Vaccarin frantziar taldekideekin. Irailaren 22an hasi zuten Espainiako LEB2 Liga eta baikor ageri da, Aitor Uriondok zuzendutako taldeak lan polita egin dezakeela uste duelako. Argazkian, saskibaloia jokalaria balaia saskiratzen ageri da kantxan. Arrantzura laster.



ARRANTZALE BAT KANTXAN.

Jorge Leon, Lan Mobil-Iraurgi taldeak 2007-2008 denboraldirako fitxatu duen pibota (Suances, Kantabria, Espainia), abuztuaren 13an iritsi zen Azpeitira. Bere bi afizioak uztartzea lortu du hemen: saskibaloia eta arrantza. Argazkian, kiroldegira iristen.



OGITARTEKOAREN BILA.


Entrenamendua 22:00ak aldera bukatu eta Iraurgiren tabernara joaten da ogitartekoaren bila. Afari mokadua egin eta itsasertzera abiatzen da, arrantzan egitera.

ARRANTZARAKO PREST.

Zumaiara iritsi orduko ateratzen ditu beharrezko tresnak autotik: karbonozko bi kanabera, amua, jakiak... Harrapatutako arrain txikiak itsasoan berriz ere aske uzten dituela dio.

LEHORRETIK KOSTALDERA.


Debako eta Zumaiako itsas bazterrera joaten da arrantzan egitera. Hemengo kosta berezia dela dio. Argazkian, Zumaia aldera gidatzen ageri da Leon.



»

MOKADU GOZOA.

Arrainak harrapatzeko sekretuetako bat amu erakargarria ipintzea omen. Amua jaki ederrez hornitzeak baldintza dezake arrantzaren emaitza. Leonek txipiroia jartzen die.



AFIZIOA.

Leon hiru urte zituela hasi zen arrantzan. Zortzi urterekin oparitu zioten lehen kanabera eta, harrezkero, libre dituen ordu guztiak pasatzen ditu arrantzan. Argazkian, arrantzarako kanabera prestatzen ageri da, Zumaian.

ETXERA.

Goizaldeko ordu txikietara arte aritzen da arrantzan. Ilunabarra atsegin du, "arraina errazago engainatzen delako". Arrainarekin edo gabe, bizitako uneak utzitako irudipen onarekin etxera joatea da haren saria. ◀

Uztarrria, beste kazetari baten beharrean ▶

Uztarrria Kultur Koordinakundeak Komunikazioa arloa indartzea erabaki du, dauzkan proiektuei eta berriei eusteko, eta, hala, beste kazetari bat hartuko du. Horren bila dabil.

Herri aldizkarian eta webgunean kazetari lanak egingo ditu langile horrek, eta webean *Azpeitia* ataleko artxiboa indartzeko lanak ere bai: liburuak sartu, artikulua, turismo guneak... (Uztarrriak Udalarri duela bi urtetik proiektu zehatz bat proposatua dio).

Eskatzen dena.

▶ Kazetari lanak eginda izatea. Euskalduna eta azpeitiarra izatea.

Eskaintzen dena.

▶ Kontratua. Egun erdiko lanaldia.

Curriculumala bidali.

▶ uztarrria@uztarria.com helbidera.

▶ Uztarrria Kultur Koordinakundearen posta kutxatila: 227, Azpeitia.



KULTUR AGENDA ▶

Hilabetea.
Urria.

Banaketa.
Asteburu honetan.

Non. Herriko tabernetan eta toki publikoetan.

Tirada. Mila ale.

Argitaratzailea.
Uztarrria Kultur Koordinakunde.

Azpeitiko egoeraz bilera egin dute UZTARRIAK ETA KONTSEILUAK

Azpeitian euskararen normalizazioari buruz egin daitezkeen proposamenak lantzeko, Uztarrria Kultur Koordinakundearen Euskara-erakundeak eta Kontseiluak bilera egin zuten orain dela egun gutxi.

Bi erakundeek aurreko legegaldia hasieran hitzarmena egin zuten Azpeitiko Udalarrekin, 2004an, bakoitzak bere aldetik, baina bi akordio horiek eten egin ziren 2005. urtearen hasieran, Udalarrekin hitzarmenaren garapenean eta kudeaketan izandako desadostasunagatik. ◀



Laxaro Azkune Uztarrriaren lehendakaria, Julian Eizmendi alkatea —ordukoa— eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia 2004ko martxoan, hiru erakundeek euskara akordioa sinatu zutenean.

Txosnan irabaziak

Aurtengo saninazioetan ere jarri du Uztarrria Kultur Koordinakundeak txosna, eta bi mila euroko irabaziak izan ditu. Eskerrik asko bertan lan egin zuten denei!

Webeko tar-teaz

Leku arazoengatik, oraingoan ez dugu www.uztarria.com-en tar-tea atala argitaratu.

Blogari izan nahi?

Uztarrria.com-en blogari izan nahiko bazenu, Uztarrriara deitu, besterik ez.



1.057

bazkide gara dagoeneko Uztarrrian; eskerrik asko denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN



Zure datuak Uztarrriari helarazteko aukerak:

- ▶ Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ uztarrria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): **943 15 03 58** ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez*) ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 27 euro.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarrria herri aldizkaria.
- ▶ Biografiak: *Joxe Takolo* eta *Imanol Elias*.
- ▶ *Euskarazko prentsa eta Azpeitia* liburua.
- ▶ *Loiolarik ez balitz* liburua.
- ▶ *Otsobeltz* liburua.
- ▶ *Urrestillako musika taldeak* liburua.
- ▶ *Azpeitiarrak Espainiako Gerran* liburua.
- ▶ Erdi prezioan: *Mendi gida* eta *Azpeitiko efemerideak*.

HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.

Jasoko duzu.

- ▶ Uztarrria herri aldizkaria.

JOAN...

Gurean ▶
PELLO AÑORGA

▶ ipuin kontalaria

“Deigarria da haurrak hika aditzea”

Pello Añorga ipuin kontalaria udal liburutegian izan zen irailaren 24an. Munstro eta pertsonaia bitxiak izan zituen mintzagai.

Lehenagotik izanda al zeuden Azpeitian?

Orain dela hemezortzi urte etorri nintzen lehen aldiz Azpeitira. Izan ere, bertako udal liburutegia, ipuin ordua ezarri zuen lehen liburutegien artean dago. Harrezkero, ia urtero etorri izan naiz.

Gustura sentitzen al zara hemen?

Etxean bezala egoten naiz Azpeitian. Gainera, hizkuntzari dagokionez, oso aske sentitzen naiz. Deigarria da haurrak hika aditzea.

Haurrei zuzendutako ekitaldiez gain, zerk ekarri izan zaitu Azpeitira?

Ipuin kontaketa ikastaroak ematera etorri izan naiz. Dagoeneko herriko hainbat ikastetxe eta haurtzaindegitan egon naiz. ◀




Bidegorria inauguratuta

Azpeitia eta Azkoitia elkar-tzen dituen bidegorria inauguratu zuten irailaren 21ean. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Iñaki Errazkin Azpeitiko alkatea, Asier Aranbarri Azkoitiko alkatea, Markel Olano Gipuzkoako ahal-dun nagusia eta Jabier Zarrain-dia Foru Aldundiko Ingu-rumen zuzendaria. Argazkian, agintariak bizikletan.



Ordezkaritza Hazparnera

Hazparneko kultur astean izan ziren Azpeitiko kultur, kirol, hezkuntza eta udal arlo-etako ordezkariak irailaren 23an –argazkian–. Bi herriak senidetuta daude 80ko hamarkadatik.



Bi hildako bi moto istriputan

Irailaren 12an Igor Pelaez moto gidaria hil zen Landeta parean, auto baten kontra talka eginda. Lau egunera Agustin Hidalgo hil zen Bidania-Goiatzen, gidatzen zuen motoak beste auto bat jota.

Jende gutxiago igerileku irekian

Irailaren 16an itxi zituen atea estaligabeko igerilekuak. Udan egindako eguraldi txarraren ondorioz, %16 jaitsi da igerilekuaren erabilera aurten. Guztira, 34.910 sartu-irten izan dira.



IRAILAK 1 ▶ Kanka taldearen kontzertua Txarrantxa tabernan. **IRAILAK 15** ▶ Oihane Goenagaren pintura erakusketaren inaugurazioa udaletxe azpian. **IRAILAK 27** ▶ Ingurumenari buruzko jardunaldiak Enparan Dorretxean. **IRAILAK 28** ▶ Jhonny Gerriwelt eta Ostiada taldeen kontzertuak Txarrantxa tabernan. **IRAILAK 29-30** ▶ Erdi Aroko Azoka plazan. **IRAILAK 30** ▶ Sanjuandegiko I. Mendi Lasterketa, Bide-Onak antolatuta. / Erniora ibilaldia, Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta; iraileko beste igandeetan ere Erniora irteera.

URRIAK 7 ▶ Mami Sakato organo-jotzaile japoniarrak kontzertua emango du 20:00etan, Loiolako Basilikan.
URRIAK 19 ▶ Mondokane taldearen kontzertua 22:30ean, Orkatz Kultur Elkartearen. **URRIAK 20** ▶ Batzar orokorra eta bazkaria 12:00etan, Gaztetxean. **URRIAK 21** ▶ Julian Barrenetxea abesbatzaren kontzertua 19:30ean, Betharramen. **URRIAK 25** ▶ *Montaña de luz* eta *La Chivichama* filmen emanaldia 19:30ean, Betharramen. **URRIAK 28** ▶ Cantoria de Merida abesbatzaren kontzertua 19:30ean, Betharramen.



ARDO DASTAKETA EGUNA.

Era guztietako ardoak dastatzeko aukera izango da urriaren 20an Azpeitian. Bigarren urtez jarraian antolatutako egitasmoari esker, 16 upeltegikako ardoak dastatu ahal izango dira plazan.

URRIAK 20 ▶ 11:30etik 14:00etara ▶ Plazan ▶ Udaleko Festa Batzordeak antolatuta

ESTHER BEOBIDE ▶ Misio Taldeko kidea

“Produktuen **ekoizpen prozesua** zorrotz gainbegiratzen dute”

Bidezko merkataritzaren azoka izango da urriaren 6an udaletxe azpiko arkupeetan. Misio Taldeak laugarren aldiz hartu du bere gain azoka antolatze ardura. Izan ere, 2006ko maiatzaren 13an –Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna– jarri zuten lehen aldiz azoka eta, jendearen erantzuna ikusita, egitasmoa urtean zehar hedatzera animatu ziren. “Denda bat ere zahaltzen dugu gabonetan, baina pertsona batzuk urtean zehar horrelako produktuak kontsumitzen jarraitzeko gogoia zutela oharu ginen”, dio Esther Beobide Misio Taldeko kideak.

Bidezko merkataritzako produktuek kontrol zorrotzak pasatzen dituzte hona iritsi aurretik. “Guztiz bermatuta dago kalitateko produktua izango dela, ekoizpen prozesua zorrotz gainbegiratzen baitute”,

azpimarratu du Beobidek. Munduko txoko guztieta-ko produktuak izango dira Azpeitian, eta gehien sal-zen diren produktuak kafea eta txokolatea direla aitortzen du Misio Taldeko ordezkariak.

Horrelako egitasmoen garrantziaz jabetzeko azokatik pasatzeko deia luzatu die herritarrei. “Gaur egun mundua antolatuta dagoen bezala, horrelako egitasmorik ezean, hirugarren munduko ekoizleek ezingo lukete merkataritzara dedikatu”. ◀

URRIAK 6 ▶

Bidezko merkataritzako azoka.

▶ 11:00-13:30 eta 18:00-20:00.

▶ Udaletxe azpiko arkupeetan.

▶ Misio Taldeak antolatuta.

...ETORRI



Besterik ▶

TRIKU FESTIE 2007 ▶

- ▶ Plazan.
- ▶ Triku Musika Elkarteak antolatuta.

Urriak 19, ostirala.

- ▶ RE_Mapa: Izarraitz eta Fernalia.
- ▶ 22:00etan.



Urriak 25, osteguna.

- ▶ Gora Japon eta Bizarra.
- ▶ 21:30ean.

Urriak 26, ostirala.

- ▶ Audience eta PT-Bizarro.
- ▶ 22:30ean.

Urriak 27, larunbata.

- ▶ T, Lisabö eta Dj_Ulea.
- ▶ 22:00etan.

Urriak 28, igandea.

- ▶ Tender Forever eta Logela Multimedia.
- ▶ 19:30ean.



YERA ORTIZ DE URBINA ▶ diplomazialaria

“ Mundua ikusteko gogoak eta kuriositateak bultzatu ninduten diplomaziara”

▶ Testuak: Maider Zendoia ▶ Argazkiak: Yera Ortiz de Urbinak eta Pilar Astigarragak utzita



Yera Ortiz de Urbina diplomazialaria da 2001. urteaz geroztik. Bere lanbideak munduko txoko askora eramán du. Argazkian, Jerusalemén ageri d

Yera Ortiz de Urbina (Tarragona, 1976) diplomazialariak Azpeitian pasatu zuen haurtzaroa. Jordanian eta Iraken lanean aritu ondoren, New Yorken harrapatu du.

Noiz iritsi zinen Azpeitira?

1976an. Hiru urte nituen orduan. **Zein izan zen lehen inpresioa?** Oso txikia nintzen Azpeitira iritsi nintzenean; beraz, artean ez nuen mundu gehiegi ezagutzeko aukerarik izan. Ez dut lehen inpresio berezirik gogoratzen. Dena dela, garai hartako ia oroitzen guztiak onak dira.

Zenbat urtean bizi izan zinen Azpeitian?

Hamar urtean, 1976tik 1986ra arte.

Zer oroitzen dituzu Azpeitian bizitako urteez?

Lehen esan bezala, Azpeitiari lotutako oroitzen guztiak oso onak dira. Zeharo haurtzaro zoriontsua pasatu nuen, kaleko bizitza asko egiten genuen. Oso modu berezian gogoratzen ditut Milagrosa eskolan igarotako urteak; sor Pilarrekin bizitako uneak, bereziki. Oroitzen asko ditut urte haiez: saskibaloi taldean iga-

ibilbidea

1773. Tarragonan (Katalunia)

jaio zen.

1976. Azpeitira etorri zen bizitzera.

1986. Zarautzera joan zen bizitzera.

1991. Zientzia Politikoak ikasten hasi zen Euskal Herriko Unibertsitatean (Leioa).

1996. Espainiako Kanpo Harremanetarako Ministerioak beka eman zion Brujasen Europako Kolegioan ikasteko.

1997. Europako Batzordean hasi zen lanean.

1999. Madrilera joan zen diplomazia karrerako oposizioak prestatzera.

2001. Probak gainditu ondoren, Espainiako Kanpo Harremanetarako Ministerioan hasi zen lanean.

2004. Jordaniara bidali zuten lanera.

2006. Irakera aldatzeko eskatu zuen.

2007. Nazio Batuen Erakundearen Espainiak daukan misioan lan egingo du aurrerantzean.

rotako uneak, ni bizi nintzen auzoa (Agirre auzunea), parrokiarako igandeetako paseoak, lagun baserrietarako irteerak, kaleko jolasak, bizikletako irteerak eta herriko ingurunera egindako ibilaldiak... Bizimodu guztia naturarekin harremanetan egiten genuen, mendi inguruan.

Zer iritzi duzu azpeitiarrez?

Oro har, Azpeitiko jendea adeitsua, maitekorra eta eskuzabala dela iruditzen zait.

Garai hartatik zer botatzen duzu faltan?

la denok haurtzarotik faltan botatzen duguna: ardurarik ez izatea, gardentasuna, guztiarekiko ilusioa eta lagunartea. Zehazki, egun guztian zehar aire librean jolasten aritzea gozamina zela oroitzen dut. Herrian bizitzea eta mendia gertu izatea ere asko gustatzen zitzaidan. Eskolan ere oso ondo pasatu nuen. Han antola-

tzen zituzten ekitaldietan parte hartzea atsegin nuen: Soreasura joaten ginen abestera gabonetan, ibilaldiak antolatzen genituen Loiolara...

Gaur egun, Azpeitiarekin harremanik ba al duzu?

Gustatuko litzaidake baina, lagun batzuek kontatutako albisteez gain, ez dut harreman handirik herriarekin.

Hemendik nora joan zinen bizitzera?

Zarautzera. 1986an.

Zergatik erabaki zenuen Zientzia Politikoak ikastea?

Historia eta Zuzenbidea nituen gustuko. Egia esan, letretako ikasgai guztiak atsegin nituen eta asko kostatu zitzaidan ikasi beharreko karrera aukeratzea. Denboraldi batean Kazetaritza ikastea ere pentsatu nuen, baina azkenean Zientzia Politikoak ikastea erabaki nuen, jorratzen dituen arlo guztiengatik.

Karrera bukatu ondoren, nola murgildu zinen mundu profesionalean?

Karrera bukatzean, Brujasen (Belgika) Europako Kolegioan ikasteko beka eman zidan Espainiako Kanpo Harremanetarako Ministerioak. Lanean ere aritu nintzen denboraldi batean, baina diplomazia karrerako oposioetara aurkeztea erabaki nuen azkenik.

Zein erakunde eta enpresentzat egin duzun lan?

Praktikak egin nituen epe labur batean, eta gero, Europako Batzordean aritu nintzen lanean bi urtean. 2001ean, Espainiako Kanpo Harremanetarako Ministerioan hasi nuen karrera diplomatikoa. Harrezkero, Madrilan, Ammanen (Jordania) eta Bagdaden egon naiz. Orain, Espainiak Nazio Batuen Erakundearen aurrean duen misioan lan egingo dut.

Betikik izan al duzu argi diplomaziara dedikatu nahi zenuela?

Diplomaziara dedikatzeak suposatzen duen bizimodua Batxilergo Bateratu Balioaniztuna ikas- ▶▶



an zegoela sarritan joan zen hara ordezkaritzei laguntzera.

► ten ari nintzela hasi zitzaidan interesatzen. Mundua ikusteko gogoak eta kuriositateak, hizkuntzak ikasteko nahiak eta nazioarteko harremanekiko interesak bultzatu ninduten erabakia hartzera.

Aukera horretatik zerk erakarzen zintuen gehien?

Batik bat, mundua ikusteko gogoak eta kuriositateak. Nahiz eta kostu pertsonal handiko lanbidea izan, era guztietako funtzioak bete eta jende interesgarri asko ezagutzen da. Oso zaila da lanbide honetan aspertzea.

Zer da diplomazialari baten egitekoa?

Postuaren arabera aldatu egiten da egitekoa: kontsul funtzioak (atzerrian dauden espainiarrei laguntza eskaintzea, esaterako), ordezkarietakoak edota garapenerako kooperazioko lanak egin ditzakezu.

Noiz eta nola iritsi zinen Espainiako Kanpo Harremanetarako Ministerioan lan egitera?

Bi urtean Bruselan lan egin ondoren, Madrilera joan nintzen ministeritzan sartzeko oposizioak prestatzera. Handik bi urtera gainditu nituen probak, 2001 ean, eta horrela sartu nintzen.

Irakeko inbasioaren atarikoak nola gogoratzen dituzu?

Mugimendu handiko garaia izan zen alderdi desberdinetatik begiratuta. Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Batzordeko kideak ginen eta. Ondorioz, gure egitekoa garrantzitsua zen. Irailaren 11ko atentatuen eragina nabarmena zen giroan eta, oro har, terrorismoarekiko beldurra areagotu egin zen. Hori guztia gertutik bizitzeak asko erakutsi zidan.

Lehen misioa Jordania izan zen. Zer zen zure egitekoa?



Yera Ortiz de Urbina lehen misioa diplomazialari gisa Jordanian egin zuen (2004-2006). Han zegoela, Meritu Zibilaren Gurutzearekin saritu zuten.



Iraken zegoela (2006-2007), argazkian ageri diren zakurrak adoptatu zituen. Aisialdian ere soinean eraman behar izaten zuen balen kontrako txalekoa.

“Oro har, Azpeitiko jendea adeitsua, maitekorra eta eskuzabala dela iruditzen zait”

“Egundoko zorte ona dugu bakean dagoen gunean jaio eta hainbeste aukera eskura izateagatik”

Afer kontsularrez arduratzen nintzen, batik bat. Dena dela, enbaxadetan ohikoa izaten den bezala, azkenean denetik egiten bukatu nuen. Beraz, gai politikoak, protokoloak eta kontsularrak (bisak, espainiarrak babestu, aberriratzeko eta abar) jorratu nituen.

Zer esanahi du 2006ko irailaren 1ak zure bizitzan?

Egun horretan iritsi nintzen Bagdadera eta askorako eman duen urtebetea abiatu zen orduan. 2005eko azaroan egonda nengoan Iraken ordezkapen bat egiten; beraz, ez zen han egoten nintzen lehen aldia. Hala ere, zalan-tza eta bertigo berarekin egin nion aurre esperientzia berriari.

Zergatik aurkeztu zinen boluntario hain misio arriskutsurako?

Lehen esan bezala, aurretik ere izanda nengoan Iraken. Gainera, hasieratik jarraitu dut Irakeko gatazka, bai Madrilengoa eta baita Ammanera joan nintzenez ere. Beraz, interes profesionala, kuriositatea, erronka berri bati aurre egiteko gogoak eta neure egoera pertsonala batu ziren.

Nola deskribatuko zenituzke Iraken pasatutako hamahiru hilabeteak?

Askorako eman duen denboraldia izan da. Esperientzia samingariak bizi izan ditut: tentsioa, urduritasuna eta giza harremanen inguruko tirabirak. Gizakiak ba-

“Zientzia Politikoak ikastea erabaki nuen jorratzen dituen arlo guztiengatik”

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain Larrialdiak:
943 15 16 40

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

LORE ARDENA
Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak
Etxeetarako
zerbitzua dugu
Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25

rruan daraman txarrena –izua, in-darkeria eta ezegonkortasuna— eta onena –sagrifikatzeko ahalmena, leialtasuna eta ausardia— ezagutu ditut. Egia esan, esperientzia horrek heldutasuna eman dit.

Zuk esana da: “Ez dut uste Ira-ken bezain baliagarria senti- tzerira iritsiko naizenik inoiz”. Hango egonaldia mugarrria izan al da zure ibilbidean?

Zalantzarik gabe. Munduaz neu- kan perspektiba zeharo aldatu zait. Benetako garrantzia duena- ren inguruan pentsarazi dit. Izan ere, egundoko zorte ona dugu bakean dagoen gune batean jaio, hainbeste aukera eskura izan eta bizitzeko hain baldintza onak izate- atatik. Hori guztia baloratu eta babestearen garrantziaz ohartu naiz.

Orain New Yorken bizitzen hasi zara. Zure hurrengo mi- sioa Nazio Batuen Erakundea izango da. Zerk erakartzen zaitu hastear dagoen aro berri- tik?

Alde batetik, Nazio Batuetako unibertsoa ezagutzeko gogo- a daukat: nola hartzen dituzten alde askotariko erabakiak... Bes- talde, jakina, New York bera eta Ameriketako Estatu Batuak eza- gutu nahi ditut.

Gainditu gabeko irakasgairik ba al duzu etorkizunera begi- ra?

Bat baino gehiago ditut baina, lanbideari dagokionez, ez dut hel- buru zehatzik. Dena dela, oraindik leku asko ezagutzea gustatuko li- tzaidake. Bagdad erronka izan zen bere garaian, eta New York ere hala izango da, beste modu batera. Hortaz, lasaitasunarekin hartu dut.

ikasle BEREZIA

Pilar Astigarraga —sor Pilar— Yera Ortiz de Urbina- ren irakaslea izan zen Milagrosa ikastetxean. “Hura txikitatik nabarmendu zen”

Yera Ortiz de Urbina hiru urte- rekin etorri zen Azpeitira bizi- tzerira. Milagrosa Ikastetxean ikasi zuen hamahiru urtera arte. Han- txe ezagutu zuen Pilar Astigarra- ga —sor Pilar— (Errezil) ande- ñoa eta oso harreman bereziari ekin zioten. Azpeitian izandako haurtzaroaz galdetzean, Ortiz de Urbina sor Pilar aipatzen du. Honek, berriz, izandako ikasleen artean leku berezia eskaintzen dio hari.

“Benetan neska azkarra eta abila zen”, dio Milagrosako ande- ño ohiak. “Oraindik gogoan dut gure artean izandako neskato hura; inguruan gertatzen zen guz- tiaz jabetzen zen”.



Pilar Astigarraga, sor Pilar.

Garai hartan, irakasteko mo- dua gaurkoaren desberdina zela dio mojak. “Hiru eta lau urteko haurrek gela berean ikasten zuten, baina ikasgai desberdinak erakusten genizkien”. Ortiz de

Urbina orduan hiru urte zituen eta bere adineko haurrek baino azkarrago ikasi zuen irakurtzen. “Bazkaltzen ari ginela hark ozpin botila hartu eta ‘bi-na-gre’ [ozpin] ahoskatu zuen. Geure artean ez- tabaidatu genuen ea irakurtzen bazekien edota produktua identi- fikatu zuelako ahoskatu zuen izena. Azkenean, irakurtzen zeki- la konturatu ginene. Nik uste gela berean zeuden lau urteko haurrei ematen genien klasea tentuz jarraitzen aritzen zela”.

Pasadizo hura gogoratzean barre txikiak irteten dio mojarri. “Nik banekien neska hura oso berezia zela. Ez nau batere harri- tzen haren ibilbideak”. ◀



Yera Ortiz de Urbina —laukian sartuta— bere gelakideekin eta sor Pilarrekin, 1976an, Milagrosan.



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klínika

www.clinicarecalde.com

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44



Taliba Azaoum te berdea hartzen ageri da etxeko egongelan, Azpeitian.

FEDEAREN baraualdia

Azpeitian bizi diren musulmanak Ramadanean daude. Egunak barau eginda eta gauak janez igaroko dituzte urriaren 12ra arte

► Testuak eta argazkiak: Mainer Zendoia

Azpeitian bizi diren musulmanak Ramadanaren egiten ari dira irailaren 13az geroztik. Musulmanek ilargiaren arabera egutegia dute eta bederatzigarren hilabetea deitzen diote Ramadan. Garai honetan egiten duten hogeita hamar eguneko baraualdia izendatzeko izen bera erabiltzen dute. Ramadan oso hilabete berezia da musulmanentzat, baraua egiteaz gain gogoeta garaia abiatzen dutelako. Eguzkia irtetea jan eta edateari utzi, eta eguzkia berriz ere sartzen den arte ez dute mokadurik probatzen.

Taliba Azaoum (Tanger, Maroko) 2004ko urriaren 29an iritsi zen Azpeitira. Hamazazpi urte zituen orduan eta, hasieran, herrira moldatzea kostatu egin zitzaiola aitortzen du. "Jendea, klima eta hizkuntza guztiz desberdinak ziren. Gainera, ez nuen herriko inor ezagutzen eta horrek asko eragin zidan". Pixkanaka herrira moldatzen joan zela dio eta dagoeneko herriko bizimodura ohituta dagoela. Enparan kaleko mintzalekuan egiten du lan eta jaioterri-
tik urrun ekin dio Ramadanari.

Irailaren 13an hasi eta urriaren 12an bukatuko da aurtengo Ramadan. "Ilargiaren arabera egutegia –musulmanena–, eguzkiaren arabera egutegia –gregoriotarra– baino 11 edo 12 egun motzagoa da. Beraz, urtetik urtera aldatu egiten da baraualdia abiatzeko data", azaldu du Azaoumek. Hogeita hamar eguneko baraualdia egiteko, aurrez aldetik ez duela prestaketa berezirik egiten aipatu du. "Lehen egunetan kostatu egiten zait barau egitea, egarria eta gosea izaten ditudalako, baina bost bat egunera gorputza ohituta izaten dut". Sakrifizioak alde batera utzita, Ramadan garaian "oso gustura" sentitzen da. "Zeharo hilabete berezia da guretzat. Ramadan iristeko irrikatan egoten naiz". Azaoumek arrazoi bat baino gehiago ditu Ramadanaren egiteko. "Alde batetik, geure erlijioak hala

agintzen duelako eta, bestetik, geure gorputzarentzat oso ona delako".

Garai honetan musulmanek ezin dute ezer jan edo edan egunez. Orduak zehaztuta dituen taula batek agintzen die egun baikoitzean noiz hasi behar duten horretan (egunetik egunera aldatzen da ordua). "Demagun 20:17ean jan behar dudala gaur, ordu horretan *harira* –Marokoko sopa tradizionala–, Marokoko gozoak eta datilak jaten ditut. Ondoren, errezzatu egiten dut eta ordubetara edo afaldu". Egunotan prestatzen dituzten jakiak balio kaloriko handikoak izaten dira, gauean jandako jakiek emandako energiarekin egiten baitiote aurre eguneko baraualdiari.

► **SALBUESPENAK.** Ramadanean baraualdia hausteko aukera dute haurrek, gaixoek, bidaiariak eta hilerokoarekin dauden emakumeek. "Hilerokoa etortzen zaidanean, baraualdia hautsi ahal izango dut baina, Ramadan amaitez, huts egindako egunak errekuperatu beharko ditut". Hala egin beharko dute gaixoek eta bidaiariak ere.

Taliba Azaoumek Azpeitiko bizimoduko baldintzetara egokitu behar izan du Ramadan. "Lanetik gaueko hamarretan ateratzen


Ohitura desberdinak

Taliba Azaoum 2004ko urrian iritsi zen Azpeitira. Hasieratik nabaritu zituen jaioterriaren (Tanger, Maroko) eta bizilekuaren (Azpeitia) arteko desberdintasunak. Hizkuntza, klima eta kultura desberdineko herria aukeratu zuen bizitzeko. "Hasiera batean, buruan painelua eramateagatik jendeak harridura begiratzen zidan. Marokon nengoela beti erabiltzen nuen painelua eta hona etorritakoan ere ohiturari eutsi nion", dio Azaoumek. Dena dela, gaur egun herritarrak ohitu egin direla uste du. "Gure kulturako ezaugarria dela konturatu dira azpeitiarrak, gu haien ohiturak desberdinak direla jabetu garen bezala. Jaio nintzenetik inguruan izan ditudan pertsona denak horrelaxe ezagutu izan ditut, paineluekin. Niretzat hori ez eramatea izango litzateke arraroa".

Orduen taula

Musulmanek taula batean zehaztuta dituzte eguneko errezo orduak (lehen sei zutabeak), jaten hasi (bigarren zutabea) eta uzteko (seigarren zutabea) orduak, eguzki egutegiko eguna (zazpigarren zutabea) eta Ramadaneko eguna (zortzigarrena).

1	جدول اوقات الصلاة						
تالبا	2007 - 1429 هـ						
المدينة	صلاة	الفجر	الضحى	العصر	المغرب	العشاء	الجمعة
156	0:24	5:36	2:06	7:45	6:50	13:09	1
0:26	5:38	2:07	7:46	6:51	13:10	2	
0:27	5:39	2:08	7:47	6:52	13:11	3	
0:28	5:40	2:09	7:48	6:53	13:12	4	
0:29	5:41	2:10	7:49	6:54	13:13	5	
0:30	5:42	2:11	7:50	6:55	13:14	6	
0:31	5:43	2:12	7:51	6:56	13:15	7	
0:32	5:44	2:13	7:52	6:57	13:16	8	
0:33	5:45	2:14	7:53	6:58	13:17	9	
0:34	5:46	2:15	7:54	6:59	13:18	10	
0:35	5:47	2:16	7:55	7:00	13:19	11	
0:36	5:48	2:17	7:56	7:01	13:20	12	
0:37	5:49	2:18	7:57	7:02	13:21	13	
0:38	5:50	2:19	7:58	7:03	13:22	14	
0:39	5:51	2:20	7:59	7:04	13:23	15	
0:40	5:52	2:21	8:00	7:05	13:24	16	
0:41	5:53	2:22	8:01	7:06	13:25	17	
0:42	5:54	2:23	8:02	7:07	13:26	18	
0:43	5:55	2:24	8:03	7:08	13:27	19	
0:44	5:56	2:25	8:04	7:09	13:28	20	
0:45	5:57	2:26	8:05	7:10	13:29	21	
0:46	5:58	2:27	8:06	7:11	13:30	22	
0:47	5:59	2:28	8:07	7:12	13:31	23	
0:48	6:00	2:29	8:08	7:13	13:32	24	
0:49	6:01	2:30	8:09	7:14	13:33	25	
0:50	6:02	2:31	8:10	7:15	13:34	26	
0:51	6:03	2:32	8:11	7:16	13:35	27	
0:52	6:04	2:33	8:12	7:17	13:36	28	
0:53	6:05	2:34	8:13	7:18	13:37	29	
0:54	6:06	2:35	8:14	7:19	13:38	30	



Korana leitzeko ohitura du Ramadanean. Argazkian, Azaoum egongelan.


naiz eta, ondorioz, taulako orduak ezin izaten ditut behar bezala bete. Dena dela, Jaungoikoak badaki zergatik den, eta ahal dudanean betetzen badut nire eginbeharra, hori nahikoa da". Egunean zehar egin beharreko errezoekin ere antzeko zerbait gertatzen zaio. "Egunean bost aldiz errezzatu behar izaten dugu. Sarritan lanean harrapatzen nau errezzatzean errezzatzen ditut errezo denak batera".

Goizeko lehen errezorako esnatzea da gehien kostatzen zaion egitekoa. "Goizean goizeko errezoa, errezo guztien arteko onena da. Ahal dudanean jaikitzen naiz, baina nire gurasoak eta Marokon bizi den ahizpa egunero esnatzen dira lehen errezorako".

Musulmanek *alqibla* –eguzkia

ateratzen den puntua– izeneko gunera begira errezzatzen dute. "Musulman batek etxea erostean, *alqibla* non dagoen zehaztea izaten da lehendabizi egiten duen gauza". Azaoumek logelan duen leihora begira errezzatzen du. "Emakumezkoak ia beti bakarka errezzatzen dugu, gizonezkoek taldean, mezkitan; nire anaiek eta aitak, adibidez, eguneko azken errezoa Azkoitiko mezkitan errezzatzen dute".

► **FESTA EGUNA.** Ramadan bukatuko den egunean –urriaren 12an–, *Ad al Fitr* izeneko festa ospatuko dute. "Marokon bi edo hiru eguneko festa izaten da. Jende asko ateratzen da kalera eta familiartean jatordu gozoak eginda ospatzen dugu". Taliba Azaoumek faltan botatzen du egun horretan Tangerren izatea. "Azpeitian bizi den beste familia marokoar batekin ospatzen dugu, baina ez da gauza bera". Izan ere, Azaoumek desberdin bizi izan ditu jaioterrian eta Azpeitian egindako Ramadanak. "Han uneoro konturatzen zara Ramadan dela, baina hemen etxera iristen naizenean soilik ohartzen naiz. Normala da, hango ohitura baita, baina batzuetan faltan botatzen dut egun horietan Tangerren bizi genuen giroa". ◀



Taliba Azaoumek Enparan kaleko mintzategian egiten du lan.



ibaiaren egoera ONERA

Badiolegin araztegia jarri zutenetik, Urola ibaiko urek onera egin dute eta poliki-poliki ekosistema hobetuz doa

► Testuak: Ane Aranburu ► Argazkia: Leire Larrañaga

Duela hamasei urte jarri zuten Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako urak jasotzeko Badiolegin araztegia, La-saon. Ordutik, Urola ibaiaren uren kalitateak onera egin du eta, poliki bada ere, "ekosistema berreskuratzen" ari dela diote araztegi-ko arduradunek. Ibaietara egindako isurketen gaineko kontrola izan daiteke hobekuntza horren eragileetako bat.

Jose Antonio Martinez da Gipuzkoako Urak enpresan Isurketa kontrol-eko bulegoko arduraduna eta ibaiaren ur kalitatea hobetzeko egiten du lan. Ur hornidura eta saneamenduz arduratzen dira batez ere, uren azterketak eskumen ezberdinetan banatuta baitaude. Hala, Eusko Jaurlaritzak aztertzen ditu ibaiak eta errekek, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, esaterako, ibaietako fauna eta flora edota uren kalitatea aztertzearen eskumena. Azterketaz azterketa, Urola ibaiaren urak "kalitate onekoak" direla uste du Martinezek.

Badiolegiko araztegia jartzeaz batera ekin zioten saneamendu egitasmoei. Enprekin harremanetan jarri eta horiek ibaira egiten

dituzten isurketak kontrolatzen hasi ziren. Kolektoreak jarri zituzten herrian, eta tailerretako eta etxeetako ur zikinak horietara bideratu, araztegian garbitzeko gero. Gaur egun ere, mekanismo horrekin jarraitzen dute.

► **BALDINTZAK.** Enpresetako isurketak arautzen dituen legeak derrigortu egiten ditu lantokiak euren urak errekarara isurtzeko baimenak lortzera. Tailer bakoitzak saneamendurako baimena izateko, beste elementu batzuen artean, beharrezkoa du kontrolerako kutzeta edukitzea. Kutzeta horietan laginak ateratzen dituzte eta, ondoren, laborategian aztertzen dituzte. Laginak gainditzen

Datua ►

8

ESPEZIE.

2006ko uztailean Urola ibaian aurkitutako arrainak zortzi espeziatan sailkatu zituzten. Horietatik bi kanpotik ekarritakoak ziren.



Argazkian, Ibai Eder erreka pasatzen den gunea Hartzubia parean.


dituen enpresari abisua ematen diote lehendabizi, eta arazoak konpontzen ez badu isuna jartzen diote.

Enpresetako ur beltzekin arazorik ez dagoela adierazi du Martinezek. "Hala ere, ur beltzez gain, ur industrialera ere edukitzen dute eta ur horiekin sortzen dira arazoak". Izan ere, ur horiek tratamendu bereziak behar izaten dituzte errekarara isuri aurretik.

Kutsadura gehien sortzen duten tailerrak, gain azaleko tratamenduak egiten dituztenak izan ohi direla dio. "Produktu toxiko asko dute, ur kantitate handiak erabiltzen dituzte eta langile gutxi

izaten dira normalean. Enpresa handiek, berriz, langile gehiago dituzte eta horretara arduratuko den norbait ere bai batzuetan".

► **HERRIKO URAK.** Dena dela, enpresak ez dira kutsadura sortzaile bakarrak. Martinezen arabera, kutsadura gehien herriko urek sortzen dute. Azpeitian hiru milioi litro ur erabiltzen dira egunero etxeetan. "Ur zikinaren hamar litroetatik zortzi gutxi gora beharra, etxeetako urak izaten dira, eta hori asko da herri batean. Izan ere, errekatik hori gutxia kentzea egundoko hobekuntza da errekarantzat". ◀



ELVISEN OINORDEKOAK ERAKUSLEIHOAN.

Elvisavuelo Azpeitiko musika taldeak arrakasta handia lortu du azkeneko urtean. Elvis Presley abeslariaren doinuak berreskuratu eta taularatu dituzte hainbat txokotan. Azpeitian ez ezik, inguruko herrietan ere jarraitzaile ugari dute dagoeneko. Iñaki Azkoitiko argazki dendako erakusleihoan, esaterako, taldeak emandako kontzertuetan ateratako irudiak jarri dituzte ikusgai. Izan ere, Elvisek bizirik dirau!

► Testua eta argazkia: Mainer Zendoia

Efemerideak ▶ urria



Aurreko Gaztetxea 1993an itxi zuten. Erki kalean zegoen. UZTARRIA

udazken hasierako KOMERIAK

Everestera igo, bertsolariak eta pilotariak
jaio, Franco Loiolara etorri zen...

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarría)

URRIAK 1-1992 ▶

Everest gailurra lortu. Josu Bereziartua mendizaleak Everest gailurra igotzea lortu zuen. Joxe Urbietta *Takolo*-k beheko kanpamentutik jarraitu zuen haren igotzea.

URRIAK 3-1988 ▶

Lapatx zabalik. Lapatx zaborte-gia inauguratu zuten ofizialki.

URRIAK 8-1894 ▶

Beste bertsolari bat. Joxe Inazio Etxeberria bertsolari izango zena jaio zen, Urrestillan.

URRIAK 12-1962 ▶

'Keixeta' hil zen. Joxe Aranburu *Keixeta* aizkolaria hil zen, 81 urte zeuzkala.

URRIAK 13-1993 ▶

Adio Gaztetxeari. Zazpi urtean zabalik egon eta gero, Gaztetxea itxi zuten alkatetzak aginduta.

URRIAK 14-1939 ▶

Franco Loiolan. Francisco Franco Espainiako diktadoreak Loiolara bisitaldia egin zuen.



Josu Bereziartua mendizalea. J. B.

URRIAK 18-1987 ▶

Topaketak 87. Herrian 'Topaketak 87' izeneko ekimena ospatu zuten. Hemeretzi abesbatza elkartzea lortu zuen egitasmoak. Akilino Amezua azpeitiar organo egilea gogoratu zuten bertan.

URRIAK 23-1988 ▶

Gudari Eguna. EAJK Gudari Eguna ospatu zuen herrian.

URRIAK 28-1917 ▶

'Azpeitiano' jaio zen. Joan Egi-guren Agirrezabal *Azpeitiano* pilotari izango zena jaio zen. ◀

Pertsonaia ▶

ALBERDI OMENDUA.

Iñaki Alberdi (Azpeitia, 1934) Azpeitiko Udal Musika Bandako kideari omenaldia egin zioten 1998ko urriaren 12an. Alberdik urte asko igaro du musikari lotuta. Bandako zuzendari izatera iritsi zen 1966-1972 eta 1984-1986 urteen artean.



Datua ▶

15

URTE IBAIEDER URTEGIAK.

1992ko urriaren 10ean inauguratu zuten Ibaieder urtegia, Nuarben. Dagoeneko hamabost urte pasatu dira martxan jarri zutenetik eta aldaketak ere izan ditu azken hilabeteotan. Joan den uztailaren 20an, esaterako, urtegiaren inguruko ibilbidean paseoa ireki zuten.

Argazkia ▶



TRENAREN MUSEOA ZABALIK.

Trenaren Euskal Museoak 1994ko urriaren 4an zabaldu zituen ateak. Lurrin trenak, tranbia elektrikoak edota antzinako trenak ezagutzeko aukera eskaintzen du museoak. Gainera, lurrunezko trenak Lasaoara arteko ibilbidea egiten du apiriletik azarora arteko asteburuetan.

Kontua da... ▶

Errepublikar mitina



Imanol Elias
Odriozola

Dagoeneko 75 urte bete dira irailaren 4an Azpeitiko zezen-plazan izandako mitin errepublikarretik. Egun osoan zehar egon zen errepublikar bandera udaletxeko balkoian zintzilik, baita probintziako beste zenbait zirkuluetakoa ere.

Gobernadorea, ordea, irailaren 5ean idatzitako gutunean, udaletxeko areto nagusian ikusitakoak eragindako haserreaz mintzatu zen eta neurriak hartuko zituela agindu zuen. Haren iritziz, aretoko tokirik nagusienean izaera 'nasionaleko' sinbolo bat jarri beharko litzateke: Espainiako Errepublikaren ezaugarria edo Estatuko presidentearen argazkia.

Batzar aretoan zegoen Loiolako Inazioren irudia herriko seme gailen bat ohoratzeko asmoarekin jarri bazen ere, Jesusen Lagundiaren inguruan hartutako neurri legezkoren aurkako protesta sinbolo gisa harzitekeen. Beraz, gobernadorearen iritziz, derrigorrezkoa zen udaletxeko beste gela batera aldatzea. Bestalde, euskal abertzaletasunaren sinboloa zen Gernikako Arbolaren kuadroa une hartan aretoko tokirik nagusienean zegoen arren, bertako beste txoko batera aldatzeko agindu zuen. Azkenik, gobernadoreak adierazi zuen aldaketa horiek berehala egin be-

harko zirela, geroago boto bidez aukeratutako agintariek beste neurri batzuk hartuko bazituzten ere.

Aginduta bezala, Espainiako presidentearen argazkia jarri zuten. Gainerakoan, ordea, Loiolako Inazioren irudiari -1912. urtean erosi zenetik leku berean zegoen- eta Gernikako Arbolari -euskal herritar guztien ideologiaren ezaugarria zen, iritzi politiko guztien gainetik- buruz, aho batez erabaki zuten gobernadorearekin harremanetan jartzea. Hark ez zuen atzera egin, baina herritarren artean sinadurak bildu zituzten Loiolako Inazioren kuadroa berriro lehengo tokian izan zedin.



Azpeitiko zezen-plazan izandako mitin errepublikarra, 1932an. IMANOL ELIASEK UTZITA

Garai bateko Azpeitia ▶ Manolo San Juanek kontatua

bizipen ugariko GIZONA

Manolo San Juan 11 urterekin iritsi zen Azpeitira. Gaztaroa Uruguain pasatu ondoren, tailan igaro ditu urteak herrian

▶ Testua eta argazkia: Mainer Zendoia

Espainiako Gerrako gertakariak bultzatuta iritsi zen Manolo San Juan (Irun, 1928) tailagilea Azpeitira. "Irungo 34 lagun iritsi ginen Azpeitira gerrako errefuxiatu gisa 1939an", gogoratzen du San Juanek. "Gaur egun Etxe Zuri taberna dagoen lekuan gizarte sorospenerako eraikina zegoen, eta hantxe jaso gintuzten". Denboraldi bat han igaro ondoren, etxe bat alokatu zuten Kristi-

na plazan -gaur egungo Iturri Txikin-. Garai zailak zirela iritzi dio San Juanek. "Ahal genuen lekutik ateratzen genuen dirua; beraz, alpagatak eta pilotak egiten hastea erabaki genuen".

Geroxeago, Agirrenean hasi zen lanean, eguneko hiru pezeta- ren truke. Hantxe igaro zituen bederatzi urte, soldadutzara joateko garaia iritsi zitzaion arte. "Azpeitiko egoera ez zen erraza eta,



Manolo San Juan, bere tailerrean.

ondorioz, Uruguaira joatea erabakia nuen 1952an". Hiru urte igaro ondoren itzuli zen atzera Azpeitira, andregaiarekin ezkontzera. Urtebetera Uruguaira itzultzea erabaki zuten. "Han askoz ere aurreratuagoak zeuden. Oraindik gogoan dut aire egokitua ezagutzeak eman zidan ezustea...".

Bederatzi urteren bueltan herrira itzuli zenean, egoera aldatuta sumatu zuen. "Herriko edonork zeukan autoa eta jendea gizenduta zegoen".

▶ **ALDAKETAK.** Garai bateko ohiturak aldatu egin direla uste du tailagileak. Oraindik gogoan ditu Takolo Txiki Santiago kaleko tabernako apopiloak. "Pare bat apaizez gain, alemaniar kurioso bat ere apopilo zegoen han. Mundu Gerraren ondoren iritsi zen Azpeitira, eta espioia zela zabaldu zen herrian".

Azoka egunean baseritarrak astoan jaisten zireneko egunak ere ez ditu oroimenean urrun. "Zelaitxo zinema areto aurrean uzten zituzten astoak, astotegian. Emakumezkoak albo batera eserita etortzen ziren, hankak zabaltea bekatua zelako...". ◀

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	02 54 00
Anbul.-larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaia)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

EAE-ANV	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koor.	15 03 58

Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolakogay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

Farmaziak gaeuz ▶ urria

1-6-7-18-30

Jacome (Azpeitia).
943 08 02 58

2-19-31

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

3-15-20-21

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

4-16

Alberdi (Azpeitia).
943 81 59 74

5-17-29

Garcia (Azpeitia).
943 81 12 74

8-13-14-26

Jaen (Azkoitia).
943 85 06 60

9-10-12-22-27-28

Azpiazu (Azkoitia).
943 85 29 89



Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

- ▶ Asteguna: 09:00-13:30
- ▶ Larunbata: 09:00-13:00

UDALTAZINGOAK

- ▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

- ▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

- ▶ Astelehena: 14:00-21:00
- ▶ Beste astegunak: 07:00-21:00
- ▶ Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00
- ▶ Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00
- ▶ Kanpoko igerilekua: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

- ▶ Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00
- ▶ Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

- ▶ Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00
- ▶ Larunbata: 10:00-13:00
- ▶ Udan, Gabonetan: 08:30-13:30

ZAPO TXOKO

- ▶ Asteartea-ostirala: 17:00-20:30
- ▶ Larunbata: 16:00-20:30

HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA.

Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea hiri hondakin kudeaketaz arduratzen da. Hondakinak gutxitzea eta berrerabiltzea dira erakundearen helburuetako batzuk. Azkoitian Kale Nagusia 60-62 helbidean edo 943 85 73 19ra deituta aurki daitezke.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarrria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87


TAXIAK

81 13 07

IMANOL URIA ▶ antzinako autoen bildumagilea

Mercedes markako 'Lola' izeneko autoa daukat etxean"

▶ Testuak eta argazkiak: Maider Zendoia



TXIKITAKO AMETSA.

"Mekaniko izan nahi nuen txikitán", dio Imanol Uriak. Handik urte batzuetara eutsiko zion umetako afizioari. "Soldadutzatik itzuli arte ez nuen bete ametsa; orduan erosi nuen antzinako lehen autoa". Oro har, eskuratutako autoek mekanikaz asko erakatsi diotela aitortzen du.

Imanol Uriak antzinako autoen bilduma dauka etxean. Munduko txoko desberdinetan erositako kotxe zaharrak etxean egokitzen ditu makina bat lan eginda.

Noiztik datorkizu autoekiko afizioa?

Txikitatik. Zazpi urte nituela erosi zidan aitak aurreneko motoa.

Zein da eskuratu zenuen lehen autoa?

Soldadu nengoela erosi nuen antzinako aurrena. Eukor marka alemaniarrekoa zen, baina txarra atera zitzaidan. Auto hark erakutsi zidan ondo mekanikaz.

Autoak mantentzea neketsua al da?

Orainxe ibili naiz autoen agiriak ondo jartzen: azterketa teknikoa pasatu, piezak aldatu... Hori bai, denak martxan jar daitezke.

Zein da zure kotxe kuttuna?

Denak ditut gustuko; hori ama bati zein seme-alaba duen gustukoena galdetzea bezala da.

Lan gehien zeinek eman dizu?

Hudson markako autoak. Egitura guztia ustelduta zeukan eta goitik behera aldatu behar izan nuen.

Guztira zenbat auto dituzu?

Bederatziren bat izango ditut.

Gustuko ibilbide bat?

Lau urtean Donostiara joan izan naiz Fernando Olaizola *Donosti*-rekin eta Inazio Odria *Txermena*-rekin Kontxako Banderako egunean, Triumph Gloria autoan.

Bitxikeririk ere biziko zenuen urteotan...

Mercedes markako *Lola* izeneko autoa daukat etxean. Hura da Mercedesek ateratako lehen diesel modeloa. Motorra martxan jartzean, kriskitin hotsa ateratzen du eta, ondorioz, *Lola* izenez ezagutzen da modelo hori.

Gidari bat?

Michael Schumacher, zalantzarik gabe. ◀

Zaindu ▶ Eltzekoa

Julian
Bereziartua



Jakina da suaren aurkikuntzari zor zaiola hein handi batean gizadiaren zibilizazioa.

Gaur egun, elikagai asko beroarekin prestatuta jaten ditugu: egosita, erreta edo frijituta. Janariak egosterakoan, elikagaietan sortzen ditugun aldaketek hitz egin nahi nuke ondoren.

Denok dakigu beroaren bitartez azukreak, proteinak eta koipeak aldatu egiten direla. Baina gure zapore zentroa prestatuta dago aldaketa horietara. Bitaminen kasuan, berriz, galtzen iritelen dugu. Izan ere, bitamina asko ur bihurtzen dira, B eta C konplexuak, batik bat.

Prestaketa garaian hobe da zati txikiak egitea saihestea. Elikagaiak ur gutxi erabilia prestatzeak ere onura egingo dio gure osasunari.

Ahal den maniobra gutxien egin behar dira sukaldean. Horrela, gastronomia (jateko artea) gertuago izango dugu eta elikadura osoagoa (gure beharrak asetzeko) izatea lortuko dugu.

Prestaketarako sistemak (egurra, ikatza, izpi infagorriak, mikrouhinak, labea) ez du gauza handirik adierazten. Izan ere, harategi, arrandegi edo barazki dendatik etxerako bidea ahal den laburrena izatea, janariak gehiegi ez zatitzea eta prestatetarako denbora laburra izatea da garrantzitsuena.

AXUN ESNAOLA ▶ ekodendako arduraduna

Sendabelarrak edo botikak?

Sendabelarrak.

Prebenitu ala sendatu?

Prebenitu lehendabizi eta gero sendatu.

Arazorik ohikoena?

Edozein motako desorekak.

Janari bat?

Zerealak.

Eguzkia, lagun edo etsai?

Neurrian hartuta, lagun.

Makrobiotika, filosofia ala elikadura mota da?

Bi gauzak batera.

Gomendio on bat?

Norberak bere buruari entzuten ikastea.

Egungo bizimoduaren ondorio bat?

Estresa.

Sintomei aurre egin edo zergatiak aurkitu?

Zergatiak aurkitu.

Esentzia bat?

Limoia.

▶ Testua eta argazkia: **Maidar Zendoia**



Abizena ▶ Lizarralde

Armarria.

Oñatiko etxeko armarrria da ondokoa. Hondoa zilarrezkoa du eta, haren gainean, urre eta gorri koloreko laukiz osatutako zutabe horizontala ageri da. Erdian bi otso daude, urdin koloreko bordatu batek babestuta. Bost hostoko zortzi urrezko adaska ageri dira bordatuan.

Banaketa semantikoa.

▶ Lizar (landarea) izenak eta -alde (ingurua) atzizkiak osatzen dute Lizarralde abizena.

Esanahia.

Lizardi esan nahi du.

Abizenaren kokapena.

- ▶ Bergara.
- ▶ Oñati.
- ▶ Ormaiztegi.
- ▶ Bilbo.

Abizenaren hedapena.

- ▶ Oñati (1625).
- ▶ Bergara (1669).
- ▶ Arrasate (1709).
- ▶ Soraluze (1658).
- ▶ Urretxu (1723).
- ▶ Leintz-Gatzaga (1727).
- ▶ Bilbo (1796).



Esandakoa ▶

“Komunikabideetan gauzak esan esaten dira, baina esaten ez dena ere hor dago”

PAKO ARISTI ▶

kazetaria eta idazlea

“Egañak eta biok 25 urtean ez dugu haserrealdi ez handirik ez txikirik izan; horretan zortea izan dugu”

XEBAXTIAN LIZASO ▶

bertsolaria


Zenbat ▶

14.

URTEA.

Hamalagarren denboraldiari ekin dio *Goenkale-k*, eta hasieratik dago Kontxuelo Odriozola aktore lanetan.

K
CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK




kutxa

Gertuko pasadizoa ▶

espainiako gerrako OINAZEAK

‘Azpeitiarrak Espainiako Gerran’ liburutik hartua ▶ Argitaratzailea: Uztarria
▶ 2006 ▶ Egilea: Amaia Mendizabal



KAPITULUA ▶ Ignacio Artetxe (88. orrialdea)

1936ko uztaila. Nola harrapatu zintuen Espainiako Gerraren hasierak?

Gerrak 16 urterekin harrapatu ninduen, oso gazterik. Gerra aurretik nire ume garaia izan zen. Ikasten ari nintzen orduan eta batxilerra gerra hasi zen urte horretan bertan bukatu nuen, 1936an. Azterketak egitera orain Eusko Jauriaritza eta Eusko Legebiltzarra dauden lekura joaten ginen: Gasteizera, Becerro de Bengoa zen kalera. Ikasgaiz ikasgai, banakabanaka etsaminatzen gintuzten. Zazpi, zortzi edo bederatzia lagun joan ginen Azpeitiko Maristetatik: automobil bat hartu maristekin,

egun bat edo bi pasatu Gasteizen, egin azterketak eta hor bukatu genuen batxilerra.

Eta gerra hasi zen.

Azpeitian nengoen une hartan, batxilerra bukatu berritan. Artean jolasean nenbilen, umea nintzen eta. Oroitzapen solte batzuk ditut egun haiez. Bata, Donostian militarrek Errepublikaren aurka matxinatu zirenekoa. Militar haien artean azpeitiar asko zeuden eta porrot egin zutenean, akordatzen naiz Guipuzcoana autobusetan nola etorri ziren herrira. Izan ere, haiek soldadu bezala ofizialek agindutakoa bete besterik ez zuten egin; horrela, porrot egindakoan ez zituzten ezta atxilotu ere egin eta segituan etxera bidali zituzten.

Azpeitiko egoera zein zen gerra hasierako egun haietan?

Ez oso ona. Ez zuten uzten mugitzen: ezin zenuen tren hartu, ezin zenuen herritik mugitu ezertarako... Gipuzkoa eta Bizkaia Eusko Jauriaritzaren eskuetan zeuden, Araba eta Nafarroa ez. Akordatzen naizen beste gauzetako bat, Loiolan gudarien batailoioak nola elkartzen ziren da. Egunero joaten ziren Matxinbentako frontera, Mandubira, euren kainoi guztiekin, eta gauean atzera Loiolara buelta, berriro euren kainoi guztiekin. Gogoratzen naiz Bidaniko frontean Loiolako gudarien batailoio horietako bateko kapitana hil zela. Kapitain hura ez zen azpeitiarra, baina Azpeitiko Beobidenekoen ama hildakoaren senidea zen. Loiolan jarrita egon zen kapitainaren hil kapera. Gerra hasierako une haietan ez genuen uste hainbeste iraungo zuenik; uste genuen bi edo hiru hilabetetan bukatu egingo zela eta bakea.

Zuk zeuk ba al zenuen inongo posizio politikorik ala gazteegia zinen?

Gazteegia nintzen, bai, kontu horietarako, ez neukan posizio jakinik. Ikuslea nintzen gehiago. Nire familiakoak karlistak ziren, baina nik neuk ez nuen hain garbi ikusten, ez alde baterako eta ez besterako. ◀

PILDAIN
Inmobiliaria
www.pildain.com
Harzubia 6, behea
Tl. 9438 12167 - Fax: 943150774
e-mail: inmobiliaria@pildain.com

ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24

Otamendi
Bida Denda
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

Amenabar
D E N D A
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

domusa


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

Hitz gezidunak ▶

	Arakatu ▼	Iparr EH-n, halere ▼	Senidea ▼	Lekaimaia ▼	Lurraren birak
	IZENA	DEITURA	Lehena eta azkena	Edari alkoholiko	
▶			+		▼
Burdina eta karbonoa ▶					
Erregalua					
Anpuluak ▼	Bururatu ▶ ▼		Norbait ▶		
Parke	Mea		Erbioa		
▶			Bizkaiko herria ▼	Rubidioa ▶	
			Une honetan	Bihia, ale	
Bizkaiko ibaia ▶		(erria) Etorri ▶		Gauza ▶ ▼	
Emankor		Potasioa		Musika nota	
▶				Lantanoa ▶ ▼	Röntgen ▶
				Bi zati bi	Saturnoren satelitea
Intsektu mota ▶		Kolore askotakoa ▶			
Belaunaldia		50 eta 500			
▶				Korrikaren antolatzaile ▶	
				Sufrea	
Suari dario ▶		Zorionekoa ▶			●

* Azpeitiar kazetari eta idazlea

Hitz gurutzatua ▶


EZKER ESKUIN. 1. Garen hauek. Trebeak, iaioak. 2. Izana, edukia. Jardun. 3. Alaitasun. Bakoitzak bi. 4. Iodoaren ikur kimikoa. Bits. Bat gehi bat. 5. Salvador ..., margolari kataluniarra. Ez ezin. 6. Zilarraren ikur kimikoa. Aldapatsu, malkar. Bokala. 7. Zezen zikiratua. Galdetzaile bat. 8. Modua. Maindirea, mihisea. 9. Madarikazioa. Nork kasuaren atzikia.

GOITIK BEHERA. 1. Errukia. Europako Batasunaren laburtzapena. 2. Ukapen. Dokumentu, idatzi. 3. Larru. Errepikatuz, ikara. 4. Non kasuaren atzikia. Sits. Bokala. 5. Barazki mota. Trebe, abil. 6. Iodoaren ikur kimikoa. Asiako estatua. Azkenekoa eta lehenengoa. 7. Behar, egiteko. Leku honetara. 8. Euskal Herriko lurralde historikoa. Nahastura trinko. 9. Modu atzikia. Errenkadak.


	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1			■						
2						■			
3				■					■
4		■					■		
5					■				
6			■					■	
7	■					■			
8				■					
9							■		

Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK



HITZ GURUTZATUA



UZTARRIAREN ABUZTUKO ARGAZKI LEHIAKETA



Zer dago gaizki?



Dorre bat soberan



Eva Arregi

Eva Arregi Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 87. irabazlea. **Nabar** dendako oparia irabazi du sari gisa. Argazkian, Eva Arregi –eskubian– eta Nabarreko dendaria.

Zer dago gaizki? ▶



ERANTZUTENKOA EPEA ▶

urriak 19 (ostirala)

NORA BIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

AKATSA ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Juantxonean bi lagunentzako afaria

PARTE HARTZEKO BALDINTZA ▶

Uztarran bazkide izan behar da

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

arte

- Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura 17:30/19:00
- Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik



IMANOL GOIKOETXEA ▶ Ikermap-eko zuzendaria

“Toponimia geure ondarea da, zaindu beharrekoa”

▶ Testuak eta argazkia: Mainer Zendoia

Azpeitiko toponimia biltzen duen herriko mapa argitaratu du Azpeitiko Udalak. Ikermap toponimia ikerketa enpresa arduratu da egiteaz. Herritarrek zuzenketak egiteko aukera izan zuten irailaren erdian, eta ondoren aterako dute maparen behin betiko argitalpena; lau mila alekoa. Ikermapeko zuzendaria da Imanol Goikoetxea (Donostia).

Nola egin duzue herriko toponimiari buruzko ikerketa lana?

Ni puntu izan genituen kontuan. Batetik, eskuartean genituen izenen kokapenak egiaztatu genituen —baserrienak errazak dira, baina elementu geografikoak eta ez hainbeste—. Bestetik, udal agiritegi historikoa arakatu genuen. Katastroak, arrendamienduak, enkanteak, erroldak eta baserri zerrendak aztertu genituen, eta ondoren, kronologikoki sailkatu genituen.

Zenbat urteko lana izan da?


Urtebetekoa. 2006ko udaberrian hasi ginen. Bospasei laguneko taldea aritu gara lanean: Eñaut Franzesenak datuak bildu ditu, beste batek toponimia zerrendak konpondu ditu, beste batek mapa egin du, ni zuzentzen aritu naiz...

Zer jenderekin egin zarete?

Sagardo pixka bat atera eta hiru baserritako baserritarrak elkartzen badituzu, datu ugari ateratzen da.

Baina beste iturri onik izango zenuten...

Aipagarria da udal agiritegiaren garrantzia. Dokumentuak antzinakoak, garrantzitsuak eta askotarikoak dira. Pentsa, 20.000 erreferentziatik gora daude agiritegian. Erreferentzioki denak desberdinak ez dira, batzuk izen beraren aldaerak baitira.



Imanol Goikoetxea Ikermap enpresako zuzendaria Azpeitiko maparekin, joan den irailan, erakusketa zabaldu zutenean.

Nola idatzi edo nola esan, zuek zer proposatzen duzue?

Nola idatzi behar den. Ahoskera kontu bat da, eta idazteko era beste bat. Adibidez, guk proposatzen dugu 'Usanditza' 'Usanditzaga' idaztea. Horrelako egitasmoetan, lortutako informazioaren interpretazioa beti filologo baten eskutik dator. Kasu honetan, azpeitiar batekin kontatu genuen: Eñaut Franzesenarekin. Bertako euskalkia menperatzea garrantzitsua da oso, interpretazioa eta galdeketa egiteko. Bestela, batuekiko joera hartu eta etengabe zuzenketan sartzen zara.

Idatzizkoa proposatzen duzuela diozu. Baina zer idazke- ra mota erabili duzue?



Euskara batua. Baina euskalkiari berriro garrantzia eman behar zaio. Azpeitian oraindik oso bizirik dago bertako hizkera, baina Donostian, esaterako, apenas nabarmentzen den. Nire ustez, hurrengo pausoa bertako hizkera jasotzea izango da; hau da, toponimia ahoskatzen den bezala jaso eta irakastea. Horrela, bi forma irakatsiko lirateke: ahozkoa eta idatzizkoa.

Zenbat gunetan banatu duzue Azpeitia?

Zortzitan. Gune bakoitzak mapa eta ortofotoa du. Agian, bertan bizi den batentzat argiagoa da ortofotoa.

Erakusketan eduki duzue ikerketa lana. Ona izan al da azpeitiarren ekarpena zabaltzea?

Bai, guztiz. Lehendabiziko egunetan egundoko erromeria izan zen. Batzuek kokatu dizkigute ihes egindako hiruzpalau kontu, gehienak kale inguruak: Munoaundi, Sorgintzulo (Etxe Alai dagoen lekua), Astotegia eta Zelai Luze...

Zergehiago esan du jendeak?

Adibidez, batek esan zigun bere baserriaren izena ez zela 'Agirre', 'Agerre' baizik. Gipuzkoan oso ohiko fenomeno da; hor gertatzen dena asimilazio bokalikoa da. Azken bokalak aurrekoa kutsatzen du eta, ondorioz, 'i' hori 'e' bilakatzen da. Dena dela, fijas gero, abizena Agirre mantendu da, ez da aldatu. Hori gutxi gora-behera XIX. mende bukaeran emandako aldaketa izan da. 'Agirre'-ak, bitxia bada ere, euskara galdu den lekuetan mantendu dira. Arabako iparraldean, adibidez, oraindik 'Agirretxea', 'Agirre' ahoskatzen dute.

Azpeitiari lotutako ezaugarri berezirik aurkitu al duzue ikerketa egitean?

Nabaritzen da baserri asko dagoela. Jendeak baserriaren izena erabiltzen du ingurua izendatzeko. Hortaz, mikrotoponimiaren aberastasuna baserriak pixka bat fagozitatuta egiten du. Orduan, baserri dentsitate txikia dagoen in-

Izarraitz
magalean gaur jende gutxi bizi da eta toponimo gehienak galdu egin dira”

“Toponimoen ikerketan lekuko biaki izateko, belaunaldi zaharretara jo dugu Azpeitian ere”

Iturriotz, kasu

“Itxura denez, iturriak oso ur hotza ematen zuen –horregatik 'Iturriotz'– eta ibaiko amuarrainek hori nabaritzen zuten. Azaldu zidanak esan zidan amuarrainak ibaiko ilaran jartzen zirela, potoloenak hasieran eta gainerako denak haren atzean, jerarkia errespetatuz. Zezen-plaza atzean zegoen Iturriotz iturria; oraindik bere aska mantentzen du. Obra batzuk egin zituzten inguruan eta iturriak ura galdu zuten. Oso iturri garrantzitsua izan omen zen”.

gurutara joan behar da, eta han bai agertzen dela terrenoen toponimia barra-barra. Urzelaieta eta Odriako baserrietan ikusten da ingurune horiek euren izenak dituztela. Hor baserrikerik ez dago eta nolabait izendatu egin behar da. 'Iturmuno', esaterako, iturria sortzen den lekuari esaten zaio.

Beste ezer berezirik?

Izarraitz magalean beste fenomeno bat eman da. Gaur egun jende gutxi bizi da han eta, ondorioz, toponimo gehienak galdu egin dira; beste batzuk, berriz, mantendu eta zabaldu egin dira. Eperkoaran, esaterako, lehen gune txikiagoa zen, eta gaur egun zabaldu egin da toponimoaren eremua. Beste gauza guztiak bezala, toponimoak ere zabaldu egiten dira. Arazorik larriena da bizimodu aldatu egin dela (mendiko

lanak-eta erabat desagertu dira) eta baserriko jendea ez da mendian bizi. Hortaz, toponimoak funtzioa galdu egin du. Belaunaldiz belaunaldi pasatutako informazio hori guztia orain, hamarkada gutxi batzuetan, puskatu egin da. Gaur egun, 40 urteko baserriar batek oso izen gutxi menperatzen ditu. Haren aitak, seguruenik, izen erdiak gogoratuko zituen, eta aitona, berriz, ia guztiak. Lekuko biaki izateko orduan, belaunaldi zaharretara jotzen dugu; hala egin dugu Azpeitian ere.

Toponimia urbanoaz zer?

Kale inguruan beste fenomeno bat ere ematen da. Parte zaharrean ziur nago etxe bakoitzak bere izena duela, eraikin bakoitzak; hau da, eskaratza (karrera) bakoitzak. Gaurko kale izendegia XIX. mendekoa da, baina ordura arte non bizi zinen zehazteko 'erremintarinear', 'patxikotorrean', 'estanko zaharrean'... esaten zen. Joan den egunean, azpeitiar emakume bat etorri zen erakusketara eta esan zidan Errebal kaleko etxe batean bizi zela; etxe berria egitean, etxe zahararen eskritoretan ikusi zuen etxeak izen bat zeukala. Helbide postala agertzean, lehen aipatutako fenomeno hori desagertu egiten da.

Lokalizatu gabeko toponimorik bai?

Bai. 600-800 agertzen dira agerrietan halakoak. Badakigu gutxi gora-behera non dauden. Beraz, hurrengo pausoa litzateke inkesta sakona egitea mendi inguruan informatzaile onak topatuta.

Beraz, garrantzitsua dela toponimia berreskuratzea...

Geure ondarea baita, zaindu beharrekoa. Geuk ez badugu zaintzen, ez da inor etorriko zaintzera. **Beste herrietara zabaltzeko lan mota al da?**

Euskal Herri osoan premiazko lana da, hemendik bost urtera informatzaile gutxiago izango ditugulako. ◀

Euskararen gorabeherak ▶




GORA. Euskara norabide onean

Eliz kalea oinezkoentzat egokitzeko lanak aurrera doaz. Lanok aldaketak eragin dituzte Santiago kaleko norabidean, ez hura zeharkatzeko erabilitako hizkuntzan.



BEHERA. Euskaldunak aparkatuta

Urrestillara iritsi aurretik dagoen industrialdean zenbait enpresek aparkalekuak norentzat diren zehaztu dute. Pena da bidean euskara ere aparkatuta utzi izana.



Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko ▶

Behatokia 902 19 43 32

www.euskararentelefonoa.com

Elebide 012

www.euskadi.net/elebide

Zer egin? ▶

“Edozein agente publikorekin euskaraz egin behar dugu”

Euskal Herrian Euskaraz 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarria dago edonoren eskura

Bota lasai ▶

Pista

Xabier Euzkitzek dio *Kalaka* saiorako Josu Jon Imaz eramateko saioa egiten ari zirela. “Euskal politikariek, ordea, kolore denetako abertzaleek barne, sekula ez dute euskarazko komunikabideen aldeko diskriminazio positiborik egin. Guri ezezkua eman eta egun gutxira, maiz ikusi izan ditugu hizkuntzaz eta ideologiaz arrotz behar litzuketen komunikabideetan”.

Imazek berak, ordea, euskaraz eman zuen bere erabaki handiaren pista nagusia. Abuztuaren 31n izan zen, Zarautzen, EAJren ikasturte berriko mitinean. Bere jarraitzaileen artean, Xalbador zeneren bertsoa ekarri zuen gogora, 1967an Donostiako finaleko entzuleek txistu egin ziotenekoa: “Txistu egin didazue, baina maite zaituztet oraindik”. Horixe zioen Imazek, eta euskaraz esan zuelako ez zuen kasik oihartzunik ukan handik kanpo.

Euskal politikariak-eta maiz ez dira euskarazko komunikabideetara hurreratzen, baina ezta erdarazko komunikabideak euskarara edo euskal kulturara ere. Adibide bat: Imazek Xalbadorren bertsoaren bidez emandako pista orduan, egunkarien eta weben artean, *Berria*-k baino ez zuen jaso. Eta Azpeitiko euskaldun gehien-gehienek pista hura jakin ez... ◀

▶ Enekoitz Esnaola

www.uztarria.com/euskara-n-emandako-iritzia

Lasao


• egurrezko altzaria

Lasao Industrialdea z/g
Tel. 943151182



altzari bereziak,
zu ere berezia zarelako

www.lasao.com



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50

EREGI
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

anagrama eta
logotipoa,
katalogoak,
kartelak,
aldizkariak...
diptikoak
seinaletika:
errotuluak,
panelak...



hasieratik
irudimena
lantzen!

goiko kalea 5, 3A • tel.: 943 08 06 88 • 20730 azpeitia
e-posta: eregi@eregi.net

